

**IRITZIA | 9**

"Ezin dut gehiago...  
estresaturik nago"

**GURE ELKARTEAK | 12-13**

Hirigoyen elkartea

**GERTUTIK | 18-19**

Eli Pinedo

**EUSKARA OSAKIDETZAN | 20-21**

Euskarazko ofimatikako erremintak



## OSAKIDETZAK OSAKAT KATALOGO KORPORATIBO BERRIA EZARRI DU

DATU-BASE BERRIAK APLIKAZIO GEHIAGO  
AHALBIDERATUKO DITU | 5-8

## BESTE BAT

OSATUberrirekin Osakidetzako euskarazko aldizkarien bigarren aldiari eman zitzaion hasiera. Dagoeneko 15 hilabete pasatu dira ordutik, bi hiletik behingo 7 zenbaki eta 7.000 aletik gorako tiradarekin. Aurreko aldiko OSATUZ aldizkariaren aldean, arlo sanitarioko edukiek leku handiagoa hartu dute eta zabalkunderako bide berriak urratu ditugu: unibertsitatea, ambulatorioak, ikerketa eta garapen zentroak. Goitik beherako diseinu eta mezu berria, osasun arloan aurrerarik izan ez duen hedabide asmoa; egunerokotasuna eta ezagutza uztartu nahi duen euska-

razko komunikabide berritzailea, hain zuzen ere.

Argitalpenaren hartzaileen artean, Osakidetzako langile euskaldunak, euskalduntzeko bidean dauden profesionalak eta pazienteak edo euskarazko unibertso sanitarioak aldizkarira erakarrirako edozein irakurle egon daiteke. Hori behar bezala bermatzeko, aldizkaria Osakidetzako erabiltzaileen esku ere izaten da; bai itxarongeletan bai jende guztiarentzako guneetan. Beti berdintasunean eta aniztasunean.

Horiek horrela, arlo sanitarioaren gaineko egunez egunekoak eta

albisteak hizpide eta lekuko izateaz gain, herrixkak, pertsonaia famatuak, museoak, hiriak, unibertsitateak, ikerketa lekuak, osasun arloko zentroak, herriko elkarteak eta, nola ez, agenda zein pasadizoak protagonista dira orrialdeetan barrena.

Hara, beste urte bat gauza asko eta gorabeherak kontaktu eta zabal-tzeko, jakin badakigulako orain arte egin duen bezala irakurle leiala beti egongo dela gertu eta aiduru eta guk ere desiotan beste bat, beste bat... hainbatetan idazten jarraitzeko.

### OTSAILA

#### EUSKARA IKASTAROAK 2013-2014 DEIALDIA

Otsailaren bukaera aldera argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian 2013-2014 ikasturteko euskara ikastaroen deialdia.

Eskaerak egiteko epea martxoan irekiko da. Informazio gehiago Osakidetzaren euskera webgunean.

#### 2013KO TREBAKUNTZA IKASTAROAK

Euskara Zerbitzua Korporatiboak Prestakuntza Zerbitzu Korporatiboaren bitartez prestakuntza ikastaro berezituak antolatuko ditu udaberrian, langileek eguneroko lanean dituzten hizkuntza eragozpenak gainditzen laguntzeko pentsatuta.

Parte hartzeko deialdia otsailaren erdi aldera irekiko da Prestakuntza Zerbitzu Korporatiboaren bidez.

Informazio gehiago: Osakidetzako Euskara Zerbitzuko Prestakuntza arloa (945 00 62 66 / 945 00 64 06) eta zerbitzu-erakundee-tako euskara zerbitzuak.

#### OSPITALEEN ETA KUDEAKETA SANITARIOAREN GAINEKO 18. BILTZAR NAZIONALA

2013ko otsailaren 20tik 23ra. Bilboko Euskalduna Jauregian.

Informazio gehiago:  
[www.congresohospitales.org](http://www.congresohospitales.org)

#### ZABALKUNDEKO JARDUNALDIAK. ERIZAINZAKO IKERKETA

2013ko otsailak 5, 12 eta 19.

- Otsailaren 5ean, Vitoria-Gasteizko Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU).
  - Otsailaren 12an, Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko ekitaldi aretoan.
  - Otsailaren 19an, Biodonostiako ekitaldi aretoan.
- Ordua: 16:00-18:30

### MARTXOA

#### APARTEKO KRITIKOEN UNITATEAREN TRANSPLANTE-EMATEAREN IKASTAROA

Ikastaroa martxoaren 13an eta 14an egingo da Bilboko LEDO eraikinean.

Emaile potentzialak ekarri ditzaketan kanpo unitateetan lan egiten duten mediku eta erizanei zuzenduta dago. Transplanteen koordinazioa eta esparru desberdinetako profesionalen interakzioa landuko dituzte.

#### 2013KO OSAKIDETZAKO LANGILEEN EUSKARA AZTERKETAK

Osakidetzako langileentzako hurrengo euskara azterketen deialdia Osakidetzak kudeatuko du eta proba horietan izena emateko epea martxoaren 18ko astean irekiko da. Izena ematea Osakidetzako webguneko Euskara atalean egin beharko da:

<http://ce.osakidetza.net/eus/ce.html>.



**Argitaratzailea:**

Osakidetza  
 Araba kalea 45, 01006  
 Vitoria-Gasteiz  
 Tel.: 945 006 314  
[osatuberrri@osakidetza.net](mailto:osatuberrri@osakidetza.net)

**Erredakzio kontseilua:**

Xabier Arauzo  
 Juan Elorriaga

**Euskara zuzentzaileak:**

Juan Elorriaga  
 EMUN lana euskalduntzeko  
 kooperatiba

**Koordinatzailea:**

Arteman Komunikazioa

**Tirada:**

7.000 ale

**Lege gordailua:**

ISSN 2254-450X

**Diseinua eta maketazioa:**

Arteman Komunikazioa

**Azaleko argazkia:**

Xabi Rezabal

**Argazkiak:**

Xabi Rezabal / Arteman / BCC

**Inprimategia:**



Gertu (Oñati)

## Osatuberrin parte hartu nahi?

Zeuren protagonista izan zaitzake aldizkarian. Atal hauetan parte hartzeko, idatzi [osatuberrri@osakidetza.net](mailto:osatuberrri@osakidetza.net) helbidera.



# AURKIBIDEA

2	AGENDA
4	JAKINBERRI: Azken berriak motzean
5 8	SAKONEAN
9	 OSAKAT katalogo berria
9	IRITZIA "Ezin dut gehiago... estresaturik nago"
10   11	OSASUN URRATSAK Haurren etxeko ospitaleratze zerbitzua Gurutzetatik
12   13	GURE ELKARTEAK Hirigoyen elkarteak
14   16	PLAZATIK Basque Culinary Center
17	 ZORTZIKO TXIKIAN Xabier Intxaurbe
18   19	GERTUTIK Eli Pinedo
20   21	EUSKARA OSAKIDETZAN Euskarazko ofimatikako erreminta
22   23	ATZERA BEGIRA Medikuak eta gertakariak
24   25	OSAKIDETZAN BIZITZA Elektromedikuntzako langileen elkartasuna
26	OSASUN-ZENTROAN Aretxabaleta
27	TXAPELA BURUAN Aiara

## ARABAKO TXERTOEN UNITATEA JAIO DA

ARABAKO UNIBERTSITATE OSPITALEA

Arabako Unibertsitate Ospitaleak Arabako Txertoen Unitatea abian jarri du. Medikuntza Prebentiboak sustatutako proiektu honek Lehen Mailako Arretako mediku eta espezialisten bidez, zentroari berari eta osasun-barrutiari erantzuna emango dio. Txagorritxu eta Santiago bateratzeak eta kanpokontsultetako eraikin berria egiteak Txertoen Unitatearen proiektua finkatzea ahalbideratu dute.

Medikuntza prebentiboaren helburu nagusiak hurrengoak dira: osasun-asistentziarekin erlazionatutako infekzioak behatu eta kontrolatzea, osasuna suspertzea eta osasun klinikoa eta asistentzia-kalitatea bermatzea. Hau dela eta, AUOko eta Araba Eskualdeko pertsonalarentzat erreferentia izan nahi duen zerbitzua sortu da, kontsultatzeko eta Arabako biztanleei prebentibo izaerako asistentzia emateko tresna bezala.

Medikuntzaren historiak erakusten du txertoen praktikek behera egiten dutenean, gaixotasun infekziosoen gora egiten dutela. Horregatik, gizakiaren gaixotasun askotan eta aire-transmisioetan prebentzio-neurri eraginkor bakarra txertaketa da.

Infekzio eta txertoen arloan aurrerapena ikaragarria izan da eta honek prebentzioan espezializatzea eta talde adituak sortzea eskatzen du, esperientziak eta ezagupenak trukatzeko eta txertoak praktikan jartzen ahalbidetzen dutenak.

Hurbileko etorkizunean txertoak eduki ahal izango ditugu minbizia, endekapenezko gaixotasunak eta neurologikoak edo kokainarekiko atxikimendua bezalako gaixotasunak sendatzeko.

## KOLON-ONDESTEKO MINBIZIAREN BAHEKETA

GURUTZETAKO UNIBERTSITATE OSPITALEA



Datorren martxoaren 7an, eguneratze-ko jardunaldiak egingo dira Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko ekitaldi aretoan. Izan ere, minbizi kolorrektalaren prebentzioa hobetzeko ezagutza ez ezik, antolamendua eta ebaluazioa ere partekatzea da helburu nagusia. Era berean, minbizi kolorrektalaren prebentzioan, baheketan, eta jarraipenean diharduten profesional guztiei zuzenduta dago jardunaldia. Azkenik, esan beharra dago Osakidetza erakundeak antolatze-lanak egingo dituela eta hainbat arlotako goi-mailako adituak entzuteko aukera izango dutela goizeko 8:00etatik 14:00etara hara hurbilduko diren profesional guztiek.

## BIZKAIKO OSASUN MENTALEKO SAREA

Martxoaren 22an hiru urte beteko dira Bermeoko Ospitalea, Zaldibarko Ospitalea, Zamudioko Ospitalea eta Bizkaiko Ospitalez Kanpoko Osasun Mentala erakundeak batu eta BOMS (Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarea) sortu zenetik. Bilboko Maria Diaz de Haro kalean, 58an du egoitza. Honela du egituratua BOMSek jarduera asistentziala:

### Buru-nahasmendu arrunta duten pertsonentzako arreta

Ospitaleko zerbitzuak: akutu eta azpi-akutuen ospitaleratzeko oheak, Zamudioko ospitalean kokatuak. Osasun Mentaleko Zentroak (OMZ)Eguneko Zentro eta Ospitaleak.

### Buru-nahasmendu larria duten pertsonentzako arreta

Ospitale zerbitzuak: azpi-akutuen ospitaleratzeko oheak, errehabilitazioa eta egoitza, Bermeo eta Zaldibarko ospitaleetan kokatuak. Osasun Mentaleko Zentroak (OMZ) Eguneko zentro eta Ospitaleak. Tratamendu Atertibo Komunitarioko Taldeak: denbora osoko ospitalizazioa behar izan ez arren, arreta intentsiboa behar duten pazienteentzat.

### Ume-gazteentzako arreta

Ume eta Gazteentzako Osasun Mentaleko Zentroak. Eguneko zentro hezitzaile-terapeutikoa.

BERRI LABURRAK



## OSAKIDETZAK OSAKAT KATALOGO KORPORATIBO BERRIA EZARRI DU DATU-BASE BERRIAK APLIKAZIO GEHIAGO AHALBIDERATUKO DITU

Osakidetzako OSAKAT katalogo korporatiboak erakundeak osotasunean egiten duen produktuen eta zerbitzuen kontratazio osoa hartzen du bere baitan, eta produktuen artean produktu sanitarioak eta ez-sanitarioak ere badira, baita medikamentuak ere. Eduki horien guztien kudeaketa orain dela 15 urte ezarritako SAP sistemaren bidez egin izan da, baina dagoeneko heldu da sistema osoa berritzeko unea.

**GARDENAGOA**  
Katalogo berri-  
tuan, zerbitzu-  
erakundeetako  
erabiltzaileek  
zuzenean egin  
ahal izango dituz-  
te eskaerak eta  
bertan produktu  
guztien fitxak  
kontsultatzeko  
aukera izango  
dute.

**D**enboran atzera egi-  
nez, 1998an Osaki-  
detzak izaera auto-  
nomoa edukitzetik  
zuzenbide pribatuko  
erakunde publikoa izatera pasa  
zen. Horrek administrazioaren  
antolaketa eta zuzendaritza eko-  
nomikoan aldaketa nabarmenak  
ekarri zituen. Aurretik Osakide-  
tzan ez zen kontabilitaterik era-  
maten, Ogasun eta Herri Admi-  
nistrazio Sailak zuzenean egiten  
zuen-eta. Baina une horretatik  
aurrera, kontabilitate, diruzaintza  
eta bestelako zerbitzuak ezartzeaz  
gain, Osakidetzak bera hasi zen  
bere sarean dauden zerbitzu-era-  
kunde guztietako erosketak egiten  
eta biltegiak kudeatzen. Une ho-  
rretan SAP izeneko kudeaketa sis-





tema sortu zen, finantza, erosketak eta biltegietako moduluak zituena. Baina une horretan, jasotako datu guztiak sistema horretan irauli zirenean, ez zen benetako garbiketa lana egin, eta katalogo berri horretara bikoiztutako kodeak ere sartu ziren. Ordutik 15 urte pasa dira, eta garai hartan egindako hierarkia eta sailkapenak erabat zaharkituak gelditu dira.

Sistema hori erabiltzeak, denboraren eta erabileraren ondorioz, datu zaharkituen pilaketak, agortutako produktuei baja ez emateak... horrek guztiak arazoak sortzen zituen eta datu-basearen benetako balioa eta erabilgarritasuna ezabatu. Gainera, gaur egun Osakidetza eguneroko praktikan ezarri nahi dituen prozedura automatizatuak katalogo korporatibo horretara lotuta daude erabat. Hain zuzen ere, katalogoa ondo ez badago, hortik abiatutako prozedura guztiak hanka okerrak izango dira halabeharrez. Horien artean, badira merkataritza elektronikoko proiektua, inplanteen kudeaketarena, produktuen petitorioena... Horiek guztiek aurrez garbitutako datu-base egokia behar dute, fidagarria izango dena produktu berrien erosketak egiteko, prezioak aztertzeke eta, batez ere, bertatik informazio fidagarria, egiazkoa, ateratu ahal izateko. “Zerbitzu-erab-

**BALIOZTATZE LAN-TALDEA**  
Zerbitzu-erakundeetako erosketak arduradunek eta Farmaziako ordezkariak lanaren emaitza guztiak balioztatu eta gainbegiratu dituzte.

kunde bakoitzetik landu daitezkeen, behin baino gehiagotan Erakunde Zentraletik informazioa eskuratu nahi dugunean ohartzen gara ez dagoela bateratuta; eta hori arazo larria da”, jakitera eman du OSAKAT katalogoaren proiektuko sistemen arduradun den Mertxe Hernandok.

**“Osakidetza eguneroko praktikan ezarri nahi dituen prozedura automatizatuak katalogo korporatibo horretara lotuta daude erabat”.**

Are gehiago, hemendik aurrera katalogo berriarekin ezingo da datu-basea edozein zerbitzu-erakundetatik aldatu, ezta datuak sartu ere; SAP sistemak aukera hori ematen zuen, baina horrek bertako informazioa aldatzeko arriskua ere bazuen, eta batzuetan gertatu ere gertatzen zen. Hori ekiditeko, hemendik aurrera, Erakunde Zentraletik bakarrik sartu ahal izango dira datuak.

#### **ALDAKETA EGITEKO PAUSOA**

Premia aspaldikoa bazen ere, Osakidetza barruan zaila zen katalogo berri egin eta ezartzeko pausoa ematea, bere baitan

hartzen duen langile eta produktu kopuru erraldoiarengatik. Are gehiago, urteen poderioz langileetako askok dinamika zehatz horiek barneratuta zituzten eta langileetako batzuek kodeak ere buruz ikasita zituzten. Halako batean, baina, Osakidetza zuzendaritzak baiezkota eman zion katalogo berria sortzeari, eta 2011n erreminta honek izan beharreko ezaugarriak eta erakundeak berak zituen premiak sakon aztertzen hasi ziren. Behin hori zehaztuta, lehiaketa deitu eta 2012ko urtarilean enpresa bati esleitu zioten prestakuntza lana egin zezan.

#### **DATU DESEGOKIAK EZABATZEA**

OSAKAT katalogoa indarrean jarri aurretik egin beharreko lan garrantzitsuenetakoa datu-basearen garbiketa izan da. Horrek esan nahi du bikoiztuta dauden materialak identifikatzea eta ezabatzea, eta gaizki gordetakoak berriro sailkatzea. Horrez gain, sailkapen edo hierarkia-sistema berria sortu dute. Eta behin katalogoa garbituta, materialak sailkapen berrira egokitu behar dira. Sistema zaharrean, ordea, material sanitarioari dagokionez 66.000 kode zeuden sartuta, eta farmaziakoak 23.000 ziren. Eta otsailean garbitzen hasiko diren material ez sanitario eta zerbitzuetan, 30.000 bat kode. Ar-

duradunen esanetan, zenbaki horiek asko jaitsiko dituzte datuen garbiketaren ondorioz.

Esan bezala, lehenengo fasea otsaila artekoa izan da. Bertan material sanitarioko katalogoa eta farmaziakoa egokitu dituzte. Lehen seihilabetekorako, berriz, material ez sanitarioa eta zerbitzuak jorratuko dituzte. Eta, bide batez, hemendik aurrera produktuak sailkatzeko irizpide berriak idatzi dituzte. Gainera, gida ireki bat izango da, non, aurkitutako arazo bati konponbidea eman ahala, horren giltza sisteman bertan gehituko den, beste edozein erabiltzailek erabilgarri izan dezan.

#### ESKAEREN KUDEAKETA SISTEMAN

OSAKAT katalogoarekin zenbait langilerentzat erabat aldatutako den beste praktika bat eskaeren kudeaketarena da. Orain arte zerbitzu-erakunde bakoitzetik material zehatzen bat behar zutenean Word edo Excel formatuan inprimaki bat bete eta Erakunde Zentralera bidali behar izaten zuten. Orain, aldiz, katalogoan bertan izango dute inprimakia eta eskaera han bete beharko dute zuzenean, gero Erakunde Zentraletik bideratzeko. "Ideia da orain inprimakia aldi bakarrean egitea, behin baino gehiagotan eginez gero akatsak egiteko arriskua handiagoa delako", azpimarratu du

erosketa integratuen arduradun den Arantza Murgiondok.

#### ESKAERAK BALIOZTATZEKO BATZORDEAK

Katalogo berriaren ezarpenaren ondorioz, hainbat batzorde berri sortu dituzte produktuak denon artean balioztatu eta adosteko. Farmaziakoa lehenik bazegoen arren, orain Erosketa integratua, Laborategikoa eta Anatomia patologikoa jarri dituzte martxan. Lantalde horietan erosketa-arduradunak, erizainak eta espezialistak batzen dira, besteak beste.

#### IZENDAPEN ETA HIERARKIA BERRIAK

Era berean, Osakidetzako arduradunek material eta produktuei izendapen berriak ezartzeko baliatu dute berrikuntza hau. SAP sistemak, orain artekoak, gehienez 40 karaktereko deskribapena onartzen zuten, eta produktu batzuentzat ez zen nahikoa. Orain, berriz, gehienez 140 karaktereko testua sartu ahal izango da eta 1.000 karaktere arteko beste testu gehigarri bat". Bestalde, hierarkia berria ezartzerakoan, datuak sinplifikatzeko aukera izan da. Hala, material sanitarioan, esaterako, 23 talde izatetik 11 izatera pasa da.

Horrekin batera, OSAKAT barruan lanean aritzeko arauen irizpideen gida ere gauzatu dute.



Modu horretan bermatuko dute hemendik aurrera sartutako produktu eta zerbitzuen deskribapenak zein neurri-unitateak baliozkoak izatea, eta erraztu egingo du produktu bakoitza dagokien hierarkian sailkatu ahal izatea.

Materialaren sailkapenak ere berritzen dihardute, gehienak aspaldikoak zirelako. Farmaziaren kasuan ATC sailkapen-sistema ezarri da (The Anatomical, Therapeutic, Chemical Classification System); inplanteetan, ordea, Espainiako Osasun Ministerioarena hartu dute oinarritzat, eta laborategietan bertan egiten diren proba analitikoaren arabera moldatu dute.

#### ERREMINTA BERRIRAKO PRESTAKUNTZA ETA KOMUNIKAZIO-PLANA

Osakidetzako pertsonalak ere lan handia egin izan du datuen garbiketa eta balioztatze-proposamena ere gainbegiratu behar izan dituelako. Prestakuntzari dagokionez,

Katalogoaren proiektuko sistemaren arduraduna, Murtxo Hernando; eta, Erosketa integratuen arduraduna, Arantza Murgiondo.



#### APLIKAZIO BERRIAK

Katalogoan egindako garbiketak, zein izendapen eta hierarkia berriek ahalbideratuko dute aplikazio berriak lotzea.



erabiltzaileei zuzendutako hainbat ikastaro egin dituzte erreminta berria erabiltzen ikasteko.

Proiektuaren gaineko hainbat informazio-saio egin dituzte egiten ari zena azaltzeko, eta komunikazio-plan hau profil askotako langileei zuzenduta egon da: gerenteak, kudeaketa-zuzendariak, erosketa-arduradunak, erizainak, finantza eta aurrekontuen departamentuetako langileak...

#### KATALOGOAREN ABANTAILAK

Arantza Murgiondok katalogo berriak ekarriko dituen abantaila ugariak zerrendatu ditu. Aldaketa nagusietako bat izango da hemendik aurrera katalogoa Erakunde Zentraletik kudeatuko dela; eta horrek erraztu egingo du kopuru handiko espediente eta erosketa bateratuak egitea. “Erosketa bateratuak egiteak dirua aurrezteari ahalbidetzen du, bai eta Osakidetza berak produktua zein merkatua hobeto ezagutzea ere”.

“Katalogo berria Erakunde Zentraletik kudeatuko da; eta horrek erraztu egingo du kopuru handiko espediente eta erosketa bateratuak egitea”.

Beste abantaila garrantzitsu bat izango da hemendik aurrera erabiltzaile gehiagok izango dutela informazioa kontsultatzeko sarbidea. Orain arte erosketen zein materialaren arduradunek eta erizaintzako buruek egin zituzketen kontsultak, baina orain, Enpleguaren Atariaren bitartez, edozein langilek izango du sarbidea. “Katalogo guztia Webgunean egoteak erraztu egingo du edozein zerbitzu-erakundetako langileek informazio guztia eskuragarri izatea, orain arte zerbitzu-erakunde batzuetan SAPerako sarbidea ere ez zuten-eta”, argitu du Mertxe Hermandok.

Gainera, asmoa da epe laburrean katalogo horretan produktuen argazkiak, haien ezaugarri teknikoaren fitxak eta bestelako ele-

mentu gehigarriak sartu ahal izatea, betiere produktu eta zerbitzuen gaineko informazioa gehitzeko asmoz. “Orain arte produktuek ez zuten informazio teknikoa datu-basean; hala, Erakunde Zentralean ez zuten produktu bakoitzari buruzko informazio gehigarririk; bai, ordea, eskaera zehatza egiten zuten zerbitzu-erakundeetan”.

#### PROBAK EGITEKO PROZEDURA

Langileak trebatu, datu guztiak irauli eta katalogoa indarrean jarri aurretik, hainbat proba egin behar izan dituzte sistemak izan ditzakeen arazoak detektatzeko. Hala, otsailaren hasieran (hilaren 11n) lehen fasea martxan jarri aurretik, urtarrilean zehar hainbat proba informatiko egin zituzten simulagailuekin prozesuaren nondik norakoak aztertzeko. Lehenik eta behin, hastapen-makina batez probak egin zituzten. Horren ostean, egiazko datuekin beste makina bat elikatu zuten, material berrien sorkuntza-eskaera eta aldaketen aurrean nola erantzuten zuten ikusteko.

#### LANTALDE HANDIA

Halako tamainako proiektu batek zerbitzu-erakundeetako langileen inplikazioa eskatzen du. Horregatik, hainbat kidek osatutako lantaldea osatu zen: hainbat zerbitzu-erakundetako erosketa arduradunak (Julian Lete-Arabako Unibertsitate Ospitalea, Teresa Rodriguez-Donostia Unibertsitate Ospitalea, Carmen Leon-Galdakao Usansolo Ospitalea, Maria Martikorena-Basurtuko Unibertsitate Ospitalea, Jose Angel Rodriguez-Ezkerraldea Enkarterri eskualdea, Aitor Gorostidi-Erakunde Zentrala) eta Farmaziako Eduardo Roca-Erakunde Zentrala. Horiek guztiek, proiektuarekin lotutako erabakiak hartzeaz gain, lanaren emaitza ere baliotzatzeari ekin zioten.

Horrez gain, diseinuaren fitxa teknikoa egiterakoan baliabide materialaren gainbegirale den Marian Lopez Salsamendik (Arabako Unibertsitate Ospitalea) eta Miren Elisabeth Barandiaran Erizaintzako gainbegiratzailak (Donostiako eskualdea) ere parte hartu dute.



### EL NUEVO CATÁLOGO CORPORATIVO, UNA BASE DE DATOS DEPURADA PARA UN SINFÍN DE APLICACIONES

Osakidetza ha dado el paso definitivo para renovar el sistema de catálogo de material sanitario, no sanitario y de servicios. La primera fase, culminada en febrero, ha incluido el Material Sanitario y el de Farmacia. La segunda, que finalizará en el primer semestre del año, incluirá el resto. Hasta la fecha las organizaciones de servicios catalogaban y clasificaban todos los productos y servicios mediante el sistema de gestión SAP. La información en su día se volcó sin haber sido depurada y al de 15 años se decidió hacer un diagnóstico de las mejoras necesarias, para posteriormente contratar a una empresa que realizase el trabajo. Se ha procedido a depurar los datos duplicados, a borrar los incorrectos y a reclasificar los correspondientes. También a implantar nuevos procedimientos de catalogación, jerarquización y denominación.

El nuevo catálogo posibilitará su control desde la Unidad Central, facilitará la compras integradas, el ahorro en el gasto y el mejor conocimiento de los productos y del mercado. Igualmente, supondrá un gran avance en la automatización de procesos.





**Miren Agurtzane Ortiz Jauregi.**

*Irakasleen gaietako eta Euskara eta Eleaniztasuneko Dekanordea. EHUko Medikuntza eta Odontologia Fakultatea.*

## “EZIN DUT GEHIAGO... ESTRESATURIK NAGO”

Miren “agobiatuta” dabil azken hilabeteotan. Lanean hainbat aldaketa gertatzen ari dira, mehatxatuta sentitzen da eta hainbat arazo pilatu zaizkio. Etxean, hiru haur. Lotara joaten denean ezin lorik hartu eta hurrengo egunean martxan berriro, ezin gelditu... Bazkaldu ere zutik, ordu erdi eskasean. Buruko mina egunero, sorbaldako mina askotan... bihotza bularretik irten beharrean. Beste batzuetan arnasa hartu ezinean. Gau eta egun lanpetuta, zeregin guztiek premia handia dute, “lan eta lan” da bere leloa. Beti presaka.

Estresaturik ote dago? Ezaguna dugu istorio hau? Zenbatetan ez dugun horrelakorik pentsatu edo esan. Azken boladan nahikotxo entzuten den esaldia dugu. Zergatik gaude estresatuta? Zer dugu benetan estresatuta gaudela esaten dugunean? Zerk estresatzen gaitu? Nola saihestu, sendatu, gaitz moderno eta gero eta sarriago hau?

---

*Estresa ingurunearen eskakizunen eta gizakiaren baliabideen arteko desorekak sortzen du.*

---

Gizakiak arazoei aurre egiteko gai gara, baina neurri bateraino. Horri aurre egitea deritzogu. Aurre egiteko gaitasuna desberdina da pertsona desberdinentzat eta egoera desberdinetan. Estresa, berriz, ingurunearen eskakizunen eta gizakiaren baliabideen arteko desorekak sortzen du. Formula honetan egoeraren baldintzak ditugu, alde batetik, eta gizakiak egoerei aurre egiteko eskuragarri dituen baliabideak, bestetik. Emaizta, estresa dugu, eta horrek

sortzen dituen erreakzio fisiologikoen multzoa. Beraz, gizakiak egoera bat mehatxagarritzat baliotzatzen duenean eta horri aurre egiteko bere baliabideak nahikoa ez direla hautematen duenean, egoerak gainezka egiten dio eta estresa sortu.

Nola aurre egin? Tratamendua pertsonala izan behar da, pertsona batentzat onuragarri denak ez du eragin berdina beste batengan. Hala ere, unibertsal den gauza bat dugu: bizimoduan aldaketak egitea berebizikoa da. Has gaitezen elikadurarekin: elikagai osasuntsu eta orekatuak jatea oso garrantzitsua da, hidratazioa, bitaminak; kafeina, alkohola eta tabakoa baztertzea, baita droga psikoaktiboak ere. Lo konpontzailea izan behar da; hau da, loaren ostean deskantsaturik egon behar dugu. Egokia izan dadin ohitura batzuk izan behar ditugu: ordu nahiko lo egitea, egunero lotara ordu berdinean joatea, afari arinak egitea eta lotaratzeko orduetik urrun, batik bat. Beste ohitura osasuntsu bat ariketa fisikoa dugu. Ikerketa guztiek adosten dute kirolaren onura osasunean.

Norberari dagokio estresari aurre egiteko modurik onuragarriena aukeratzea. Erlaxazioa oso praktika eraginkorra dugu: horren bitartez, organismoa tentsio edo aktibazio gabeko egoera batean jartzen dugu, geldirik, atsedenean eta poztasun, bake, lasaitasun esperientzia kontziente baten bizipenarekin.

Derrigorrezkoa dugu lanean etenaldiak egitea. Eginbeharrek ez diezagutela bizitza osoa okupatu. Gozamenerako denbora ere utzi behar dugu, dantzan egin, musika entzun, etzan, paseatu. Eguneko 24 orduetatik heren bat lanean, beste herena lotan eta azkeneko herena aisialdian eman behar dela diote. Hala egiten dugu? Ez digu formula horren desorekak estresa sortuko?

Zure iritzia eta eta balorazioa eman nahi baduzu helbide honetara idaztea duzu:  
[osatuberri@osakidetza.net](mailto:osatuberri@osakidetza.net)

# HAURREN ETXEKO OSPITALERATZE ZERBITZUA GURUTZETATIK

GURUTZETA UNIBERTSITATE OSPITALEA AITZINDARIA IZAN ZEN ESTATU MAILAN **ETXEKO OSPITALERATZE** ZERBITZUA EMATEN; BADIRA 30 BAT URTE PAUSO HORI EMAN ZUENETIK. JOAN DEN URTEAN, BAINA, BESTE JAUZI BAT EGIN ZUEN HAURREI ZERBITZU HORI EMATEKO TALDE BAT OSATUZ; ANTOLATU, TREBATU ETA APIRILEAN MARTXAN JARRI ZUTEN. LEHEN SEIHILABETEKOAN 40 PAZIENTE ARTATU ZITUZTEN, ETA DAGOENEO BERRIAK GEHITUZ DOAZ. ALOR HONETAN ERE BIDE ERAKUSLEA DUGU GURUTZETA.



Jesus Sanchez pediatria da haurren etxe-ko ospitaleratze zerbitzuko burua; berekin beste pediatria bat eta bi erizain. Zuzendaritzatik lantalde hau martxan jartzeko proposamena egin ziotenean erronka gisa hartu zuen Sanchezek, eta oso pozik dago orain arte egindako bide labor baina **emankorrarekin**. Estatuan Malagan eta Alacanten bakarrik ematen da halako zerbitzua, eta orain baita Gurutzetan ere. Zerbitzu berria sortu baino lehenago, umeei bideratuta, Gurutzetako etxe-ko arreta perinatala ere lantzen zuen. Horrez gain, pisua hartzeko arazoak dituzten haurren gurasoei laguntzera joan izan dira etxeetara bi erizain.

lazko apirilean martxan jarritako zerbitzua inguruko eskualdeetako haurrei zuzenduta dago, baina orain arte Bizkaia guztiko gaixoak artatu dituzte. Bestalde, ezinbestekoa da, gaixoak txarrera egingo balu, ospitalera azkar joateko aukera izatea. Arreta-zerbitzu berezi hau jaioberrietatik 14 urtera bitartekoentzat da, eta horren barruan patologia guztiak hartzen dituzte. Horrez gain, derrigorrezkoa da horiek

**JESUS SANCHEZ** pediatria da haurren etxe-ko ospitaleratze zerbitzuko burua; argazkian taldeko kideekin.

guztiak egoera egonkorrean dauden gaixoak izatea, hau da, epe labor edo ertainean txarrera egingo duten zantzirik ez izatea. “Zientziaren garapenari esker, gaur egun bada modua gaixo mota askok, ospitalean egon beharrean, beraien etxean zerbitzu bera jaso eta eta ahal den neurrian onera egin dezaten”.

## **BALDINTZA MEDIKOAK ETA FAMILIAREN ALDEZ AURRETIKO JARRERA**

Ospitaleratuta egoteko premia duen haur batek zerbitzu honetan parte hartu ahal izateko hainbat baldintza bete behar dira: “Mediku batek umearen gaineko balorazioa egin beharko du lehenengo eta, gaixoa etxean artatua izan daitekeela uste badu, familiari jakinarazi behar zaio. Familiak proposamena ontzat hartuko balu, guk zerbitzua ezarri aurretik gaixoaren etxe-ko egoera eta familiaren **jarrera** aztertuko genituzke”, argitu du zerbitzuko buru Jesus Sanchezek.

Gaixo dauden haurren kasuan fa-

**Arreta-zerbitzu berezi hau jaioberrietatik 14 urtera bitartekoentzat da, eta horren barruan patologia guztiak hartzen dituzte.**

milia ezinbestekoa da zentzu guztietan, eta berebiziko garrantzia dauka baita etxe-ko ospitaleratzearen eremu zehatzean ere. Hain zuzen ere, familiako kideek bere gain betebeharrak zehatz batzuk hartu behar dituzte, baina familia guztiak ez daude horretarako prest edo ez dira gai. “Gure taldeak familiaren balorazioa egiten du eta, senitartekoei zaintza horretan behar diren betebeharrak zeintzuk diren azaltzeaz gain, horretan **trebatzen** laguntzen diegu. Ezin bada zaintza baldintza horiek bete, ez diegu zerbitzua emango eta umeak, ordura arte bezala, ospitalera bideratuta jarraituko du”, azpimarratu du Sanchezek. “Kasu gehienetan beraien



seme-alabak zaintzen eskarmentu handia duten gurasoak dira, eta beti gehiago ikasteko prest daude, baina baliteke erizaintza alorreko teknika batzuk egiteko zailtasunak izatea, adibidez”.

Ezinbestekoa den beste gauza bat da familiak egunero 24 orduz telefono bitartez aurkitzeko moduan egotea. Era berean, zerbitzua eskaintzen duen taldea ere uneoro dago telefonoa eskutan duela, edozein arazo edo zalantza izanez gero, berehala arreta emateko. “Ume guztiak ez ditugu asteko egun guztietan bisitatzen; batzuek ez dute horrenbesteko premia, beste batzuek bai... baina egunero hitz egiten dugu familiarekin haurrak nola dauden jakiteko”.


#### ABANTAILA NABARMENAK GAIXOENTZAT

Sanchezen ustetan, etxeko ospitale-eratzek alde on asko ditu gaixoentzat eta familientzat. Garrantzitsuena da haurrei, ospitalean egon beharrean, etxean egoteak fisikoan eta aldar-tean on egiten diela, eta hori, bizitza kalitatea hobetzea da, zerbitzuburuaren esanetan, “ezinbestekoa da edozein gaixotasunen susperraldian”. Are gehiago, pediatriaren ustetan, umeari arrotza egiten zaion ingurune batean egoteak, ospitalean egoteak, nolabaiteko trauma eragin diezaioke, nahiz eta azken urteotan ospitaleak umeentzat “atseginagoak” izateko lan dezente egiten ari den. “Jaioberriek, esaterako, estimulu askoz gehiago jasotzen dituzte etxean, eta horrek berebiziko garrantzia du beraien hazkuntzan”.

Era berean, seme edo alaba gaixoa etxean izanda, familiek hainbat arazo ekidin ditzakete, haurra ospitalean izatea eta gurasoek lan egitea askotan ezin delako bateragarria izan, eta luzaroan familiak desegituratu ditzakeelako.

Beste abantaila mediko batzuk ere

**Garrantzitsuena da haurrei, ospitalean egon beharrean, etxean egoteak fisikoan eta aldar-tean on egiten diela, eta hori, bizitza kalitatea hobetzea da.**



#### ALDERDI GUZTIAK

Gurutzeta Unibertsitate Ospitaleko haurren etxeko ospitale-eratzeko zerbitzuak osasun alderdi guztiak hartzen ditu bere gain.



aipatu ditu zerbitzuburuak. Horien artean nabarmendu du kasu batzuetan medikazio eta tratamendu hain erasokorrek hartzen dituzten gaixoei, bereziki zain barneko hanturak dituztenek, infekzioak hartzeko arrisku handia dutela. Eta, era berean, medikazio gogorra hartzen duten paziente txiki horiek ospitaleetan zabaldu daitezkeen germen oso erasokorrek garatu ditzaketela.

Horrez gain, Sanchezek gidatzen duen taldeak umeek osasun-zentroetan egin beharreko bisita guztiak koordinatzen ditu. Hala, bateko eta besteko espezialistekin egin beharreko hitzorduak batzen ahalegintzen dira, umei eta familiei ahalik eta erraztasun handiena emateko.

#### OSPITALEKO 'BESTE SOLAIRU' BAT

Jesus Sanchezek etxeko ospitaleratzea ospitaleko “beste solairu” bat gisa iru-

dikatzen du, hau da, “ospitaleko solairu bat da, Gurutzetako eraikinean egon beharrean, hemendik kanpo dagoena”. Hori esateko argudiatzen du eraikin barruan dauden moduko pazienteak direla, betebeharrak eta eskubide berak dituztenak.

Eta, bide batez, gogoratu du ezin dela ukatu ospitaleak, zerbitzu honen bitartez, dirua aurrezten duela. “Pazientearen bizi-kalitatea hobetzeaz gain, ospitaleetan ohe gehiago egongo dira hutsik, eta horrekin Osakidetza diru zertxobait aurreztuko du, jakina”.

**Artatu:** *Atender, asistir.*

**Emankor:** *Fructifero, productivo.*

**Etxeko ospitaleratze:** *Hospitalización domiciliaria.*

**Jarrera:** *Actitud, postura.*

**Hitzordu:** *Cita.*

**Trebatu:** *Instruir, adiestrar.*

# LAN-JAZARPENA OSASUN ARAZOA ERE BADELAKO



HIRIGOYEN ELKARTEAK LANEKO JAZARPEN MORALAREN KONTRA EGITEN DU LAN. BILBOKO ERRONDA KALEAN DUTE EGOITZA, BOLUNTAREN ERAIKINEAN, ETA ASTEAN BEHIN ELKARTZEN DIRA. PSIKOLOGO BATEN LAGUNTZAREKIN LANGILEAK NOZITZEN DUEN EGOERA AZTERTU ETA HORRI AURRE NOLA EGIN IKASTEN DUTE. HORREZ GAIN, LAGUNTZA JUDIZIALA ERE ESKAINTZEN DUTE. ANGEL TELO DA ELKARTEKO PRESIDENTEA. HARK EMAN DIGU EUREN LANAREN BERRI.

Euskadiko laneko jazarpen moralaren kontrako Hirigoyen elkarteak 2001ean sortu zuten jazarpena sufritu zuten bi lagunek. Euren lana, elkartearen bitartez, laneko jazarpena nozitzen duten herritarrak babestea izan da. Laneko jazarpena mobbing moduan ere ezagutzen da. Gaur egun Angel Telo da elkartearen presidentea. Elkarteak sortu zutenetik gaur arte 900 bat lagun pasatu dira elkartetik. Horren harira Telok dio: "Jazarpena oso arazo gogorra da, horregatik ulertu behar duzue jendeak beldurra duela hedabideetan irten edo hitz egiteko; hau da, publikoki euren egoera salatzeke", eta gaineratu du: "Beldurgarria ez da egoera salatzea, beldurgarria dena da pertsona horiei egiten dieten jazarpena".

Elkarteak bi alde ditu: batetik, alde juridikoa egongo litzateke, hau da, kaltetu horiek noraezean egon ez daitezten, gertatzen zaienari buruzko jarraibideak eskaintzen

zaizkie; bestetik, alde psikologikoa dago, jendea ze egoeratan joaten den elkartera eta ze baliabide duten eurei laguntzeko.

## ELKARRIZKETA PERTSONALA

Elkarteak protokolo bat jarraitzen du laneko jazarpen kasuetarako. Elkartera joaten denari elkarriketa pertsonala egiten diote eta hartu-eman horretan ikusten dute pertsona horrek lan-jazarpena pairatu duen edo ez. Eraso sufritu duenak gutun bat idazten du gertatzen zaionaren berri emateko. Gutun hori enpresako gerenteari bidaltzen zaio, eta gerenteak bilerara deitzen du. Lan arriskuen legeak dioena da hori, baina askotan ez da egiten. Elkartearen azken asmoa epaitegietara jotzea izaten da. "Hona inor ez da diru bila etortzen, ez dute kalte-ordaina jaso nahi izaten; beraien egoera konpontzea nahi dute. Elkarte honetatik hiru bider joan gara epaitegira, gaine-

## ANGEL TELO

Hirigoyen elkarteak Bilboko Erronda kalean duen bulegoetan.

“Lan-jazarpenak ez du langilea bera bakarrik kaltetzen; familia guztiari eragiten dio”.

rakoetan akordioetara iritsi gara”, azaldu du Telok. Salaketa jarri nahi duen orori laguntzen dio Telok lan ikuskaritzara.

Azkeneko hiru urteetan gizarte zerbitzuetako psikologo eta psikiatren gomendioz jo dute askok Hirigoyen elkartera. “Hona datorrenari protokoloa zein den azaltzen diogu, eta berari dagokion alde juridikoa eta psikologikoa. Aurrera egitea erabakitzen badu bazkide kuota bat izango du, eta kuota horren bitartez psikologoarekin hitz egiten hasiko da”, azaldu du Telok.

## INGURUAN ERAGITEN DU

Lan-jazarpenak ez du langilea bera bakarrik kaltetzen, familia guztiak nozitzen du eraso. “Inguru guztia apurtu egiten da”, dio presidentek. Hirigoyen elkarteak diote ez dagoela erasotzaile eta biktimaren perfilek, eta, horren harira, Telo haserre agertu da: “Biktimaren perfila zein den ezagutzera etortzen dira ikertzaileak. Baina noiz ikertu behar dute zein den erasotzailearen perfila?”. Jazarpena nagusiaren aldetik datorrenean, helburua izaten da langileak lana uztea. Baina, jazarpena langileen artean ere gerta daiteke; baita nagusiaren aurka ere. Kasu horietan lankideari bizi-modua hondatzea da helburua.

Pertsona batek lan-jazarpena jasaten duenean, zera galdetzen dio bere buruari: "Zer egin dut gaizki? Zergatik niri? Arraroa ote naiz?"... eta horrek guztiak pertsonaren moralean eragiten du, pertsonak hondoa jo arte. Jazarpen horren ondorioa hau izaten da: bakartzea, suminkortasuna, segurtasun eza, nekea, sufrimendua, kalte psikolo-



gikoa, somatizazioa eta hutsegite larriak. Biolentzia matxistaren antza duela diote, ez dute onartu gura izaten jazarpena sufritzen dutela, eta are gutxiago jendaurrean esan. “Horregatik argi izan behar dugu erasoa nozitu duena biktima dela eta ez erruduna”, diote. Gainera, ospe-galtze kanpaina egiten dute langilearen inguruan.

“Nik uste dut instituzioek legeak egiten dituztela baina gero ez dutela euren legedia errespetatzen. Ez du ezertarako balio artikulua zehatz bat egiteak lan jazarpena delitua dela esanez. Gainera, tipifikatuta dator prozedura kriminalaren legeko artikulua zehatz batean. Baina ez dute ezer egiten”, azaldu du Telok. Horren harira, administrazioak berak gehiago egin dezakeela uste dute elkarteko kideek. Famili medikuen kasuan, Telok dio askok jakin-gogoz dutela euren pazienteei lan-jazarpena pairatzen dutela, baina ez direla ausartzen hori aitortzera.

#### KRISIAK NABARMENDU EGIN DU EGOERA

Datuek diote populazio aktiboaren %15ek sufritzen duela lan-jazarpena, eta Teloren esanetan datu hori handiagoa izango da, %17 gutxi go-

rabehera, jende askok isilean gordetzen duelako. Gainera, azkeneko urteetan lan-jazarpen kasuak %75 igo direla diote, eta horretan eragin handia izan duela bizi dugun krisi ekonomiko egoerak.

Lan-jazarpenak osasun-arazoak dakartza, baina administrazioarendako gastua ere bada: “Finean, pertsona bat gaixotzea da, eta horrek gastua dauka”, dio Telok. Pertsona bat uneoro jazarpena sufritzen ari bada, gaixotu egiten da azkeneko. Burutik gaizki bukatzen du, eta errekuperatu arte denbora asko pasatzen da. Gertatu izan da administrazio mailan egitea jazarpena: halakoetan, administrazioari multa bat ezartzen zaio, baina Telo ez dago horrekin ados. “Administrazioak ordaindu behar badu guztiok ordaindu behar dugu, baina guk ez diogu langile horri eraso; hortaz, uste dugu zigortu behar dela erasoa egin duen pertsona. Berak ordain dezala, eta ken diezaiotela dirua nominatik edo bere ondasunetik”, gaineratu du.

Segurtasunean gastatzea osasunean irabaztea da, eta etorkizunean ongizatea berreskuratzea; denok, bai enpresak, bai gizarteak. Ondo zaindutako langile batek emaitza onak ematen ditu.

“Lan-jazarpenak osasun-arazoak dakartza, eta ondorioz baita administrazioarendako gastua ere”.



#### Zer eskaintzen du elkartek?

Hirigoyen elkarteko kideak astean behin elkartzeko dira, martitzenetan, 18:00etatik 20:00etara Bilboko Boluntaren egoitzan. Laguntza psikologikoa eskaintzen dute batzar horietan. Horrez gain, Angel Telo presidenteak telefono bat dauka eta egunero jasotzen ditu telefono deiak. Telok berak azaldu du zenbaki horretara ez duela hemengo jendeak bakarrik deitzen, hemendik kanpokoek ere deitzen dutela. Eta, horrelakoetan, oso zaila da esatea “barkatu, baina Bilbora deika zabilta, okertu egin zara...”. Gaur egun 40 bat bazkide ditu elkartek. Irabazi asmo gabeko elkartea da Hirigoyen.

#### EUSKADIKO LANEKO JAZARPEN MORALAREN KONTRAKO HIRIGOYEN ELKARTEA

Erronda kalea. Bolunta eraikina. 2. pisua  
48005 Bilbo. Bizkaia.  
Telefona: 660 522 899  
<http://asociacionhirigoyen.blogspot.com.es/>



#### ASOCIACIÓN HIRIGOYEN CONTRA EL ACOSO LABORAL O MOBBING

La Asociación Hirigoyen contra el acoso laboral o mobbing tiene como objetivo ayudar a cuantos acuden como víctimas de superiores o compañeros y de ambos, prestándoles escucha en primer lugar y después consejo para que puedan llevar con inteligencia sus casos. Acosos a menudo crónicos o de largo plazo, que implican también procesos judiciales, lo que provoca un gran desgaste psíquico y físico. La asociación se creó en 2001; hoy día el presidente es Angel Telo y cuenta con 900 asociados que ha acumulado en más de 10 años de rodaje. Siguiendo el protocolo, a las personas que acuden a la asociación se les hace una entrevista personal. Si se demuestra que la persona es víctima de acoso laboral, se le da la oportunidad de recibir ayuda psicológica y jurídica. Desde la asociación remarcan que el acoso laboral es un problema que afecta a toda la familia, y al igual que sucede en la violencia machista, a la víctima le cuesta reconocer que sufre ese acoso. Según los datos el 15% de la población activa sufre acoso laboral, y en los últimos años a raíz de la crisis, ha aumentado ese número.

# BASQUE CULINARY CENTER, SUKALDARITZAREN ONDAREA JASO ETA GARATZEKO PLATAFORMA

BASQUE CULINARY CENTER EUROPAN DAGOEN GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATE BAKARRA DA, ETA IKERKETA-ZENTROA ZEIN EUSKAL HERRIA PROMOZIONATZEKO PLATAFORMA ERE BADA. ZENBAIT ERAKUNDE PUBLIKOK, EUSKAL HERRIKO ZAZPI SUKALDARI EZAGUNENEK, MONDRAGON UNIBERTSITATEAK ZEIN HAINBAT ENPRESAK SORTUTAKO FUNDAZIOAK NAZIOARTEAN ERREFERENTE BIHURTZEAZ GAIN, SUKALDARITZA ZALE GUZTIEN ZERBITZURA EGON NAHI DU.

Euskal Herriko zenbait sukaldaririk aspalditik zuten sukaldaritzari buruz ikertu, ezagutza transmititu eta euskal sukaldaritza hemen eta kanpoan ezagutzera emango zuen gune bat sortzeko ametsa. Hainbat eragilerekin saiakerak egin ostean, Mondragon Unibertsitatearen bultzadarekin fundazioa eratu eta 2011ko irailean Basque Culinary Centerrek lehen ikasturtea martxan jarri zuen.

BCC proiektu kolektiboa da eta honako eragile hauek osatzen dute: batetik, Euskal Herriko zazpi sukaldari ezagunenak –Juan Mari Arzak, Pedro Subijana, Karlos Argiñano, Andoni Aduriz, Martin Berasategui, Eneko Atxa eta Hilario Arbelaitz-; bestetik, erakunde publikoak –Donostiako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza-; hirugarren kolektibo bat, Jakintza Arloa deritzona –Mondragon Unibertsitatea eta Azti Tecnalia-; eta laugarren multzoa, enpresek osatua –Fagor Taldea, Eroski Taldea, Martiko, Heineken eta Cobac-.

## IKERKETA-IPAR GARRANTZITSUA

Donostian kokatuta dagoen guneak bere baitan hartzen ditu Europan dagoen Gastronomía Zientzien Fakultate ofizial bakarra, ekintzailtza bultzatu nahi duen berrikuntza-zentro bat eta herri-marka promozionatu nahi duen plataforma bat. “Euskal sukaldaritza herri-marka da, DNAn daramagu. Jendeak atzerrian herri bezala ezagutzen gaitu sukaldeagatik eta sukaldariengatik. Horri eutsi behar zaio, garatu eta munduan zabaldu”, azaldu du BCCko zuzendari Joxe Mari Aizegak. Sukaldearekin lotutako ezagutza eta gure aurrekoen legatua transmititzeaz gain, Aizegak uste du sukaldari horien



baloreak ere zabaltzen ari direla: “Sukaldari hauek duten grina, sukaldaria ulertzeko modua eta lankidetzeta-baloreak ere ezagutarazteko modukoak dira”.

Gastronomiaren eta elikaduraren esparruak alderdi guztietatik lantzeko ikerkuntza-zentro garrantzitsua dago bertan kokatuta, lau adar nagusi dituena. Batetik, Elikadura ohiturak: nola jaten den, zer janari prestatzen den etxeetan...; bestetik, Zentzumena: janaren esperientzia sensorial askotarikoak aztertzen dira, gero sukaldariei eta industriari produktu berriak garatzen laguntzeko. Teknologia berriak: horren barruan daude prestateta berriak, jatetxe eta janari

## GASTRONOMIAREN ETA ELIKADURAREN GUNEAK

Donostian kokatuta dagoen guneak bere baitan hartzen ditu Europan dagoen Gastronomía Zientzien Fakultate ofizial bakarra, berrikuntza-zentro bat eta herri-marka promozionatu nahi duen plataforma.

prestatuen negozioetara bideratuta; eta azkenik, Jatetxeen kudeaketa, negozio horien lehiakortasuna areagotzeko. Esan beharra dago, lantzen dituzten diziplina guztietan sektoreari laguntzeko erremintak garatzen dituztela.

## MULTZO ASKOTARIKO PRESTAKUNTZA

BCCren prestakuntza hiru talderi zuzenduta dago. Batetik, Europan sortutako Gastronomiako lehen gradu ofiziala, 4 urtekoa, unibertsitateko ikasleei zuzendutakoa, diziplina askotarikoa dena. Bestetik, sukaldaritza, ikerketa-zentro eta elikadura-enpresetako profesionali bideratutako masterrak,



## DATUA

**15.000**

metro koadro ditu, guztiak gastronomiari zuzendutakoak.

baita Espainiako eskualde gehienetakoak ere, eta kopuru osotik % 25 atzerrikoak dira (Hego Amerikako herrialde askotakoak eta Europakoak, batez ere). “Halako kultura nahasketa izateak, gainera, onura handia dakar ikasleentzat, beraien artean ere asko ikasten dute-eta”.

zenbatu zituzten: bertso-saioak, kardiologo kongresua, teknologia berrien erakustaldia eta beste hainbat.

**NAZIOARTEKO AHOJKU BATZORDEA, 'ITSASARGIA'**

Basque Culinary Centerrek nahi du sukaldaritzaren ikerkuntzan, garapenetan eta zabalkundearen puntan egon, eta horretarako etengabe dihardu lanean. Hori bermatzeko, besteak beste, Espainiako estatuko sukaldariekien network edo sare bat du martxan; eta horrez gain, Nazioarteko Aholku Batzordea ere badu gidari. “Proiektua sortu genuenetik argi izan dugu sortzaileak euskal sukaldariak direla eta, BCC nazioartean proiektu erreferentziala izatea nahi dugunez, beraiengana jo dugu orainoan ere”. Horren bidean, atzerrian egiten dena bere horretan ezagutu eta horretaz hausnartzeko, munduko bederatzitik sukaldari onenetarikoek aholku-batzordea osatu zuten. Bildu izan dira Donostian, Perun, Tokion eta aurten New Yorken dute topaketa. Perun idatzi zuten orain non-nahi berba dagoen Etorkizuneko Sukaldariei Zuzenduriko Gutun Irekia, besteak beste.

**NAZIOARTEAN EZAGUNA**

Sukaldaritzaren aldeko nazioarteko plataforma hau hain justu Donostian egoteak ez du azalpen askorik behar; hautaketa “naturala” izan zela laburbildu du Aizegak. “Egia da Donostiak biltzen dituela hainbat ezaugarri: sukaldaritza eta janariari buruzko kultura oso aberatsa, Michelin izarren kontzentrazio handiena eta Euskal Sukaldaritza berriaren protagonista nagusiak hemen daude”.

BCCk oso denbora gutxi badarama ere, dagoeneko nazioartean sektore gastronomikoan eta sukaldaritzan ezaguna da. “Ez gara hutsetik hasi, ondare garrantzitsua dago hemen, eta horrek izen handia dauka kanpoan; orain hori mantentzea da landu behar dena”. Horren bidean, 2013a hazkunde eta nazioarteratze urtea izango da; hala zehaztuta dute plan estrategikoan.


**PRESTAKUNTZA ANITZA**

BCCren prestakuntza hiru talde nagusiri zuzenduta dago: gradua unibertsitateko ikasleei; masterrak, ikastaro eta tailerrak sukaldaritza, ikerketa-zentro eta elikadura-enpresetako profesionalentzat; eta ikastaro eta tailer motzak zaleentzat.

ikastaroak eta tailerrak. Eta, azkenik, Gastronomía zaleak deritzona, ikasi eta ondo pasatu nahi duten zaleentzat egindako ikastaro eta tailer motzak. “Sukaldaritzarekiko zaletasuna duten gizabanakoak dira eta, kultura bultzatzeaz gain, ikuspegi ludikoa bermatzeko eskaintza egiten diegu; oso erantzun ona du”.

BCCren arduradunak pozik daude eskaintzen duten prestakuntzak orain arte jasotako erantzunarekin. Gradua 70 ikasleekin hasi zuten, eta gerora urtero 100 ikasle hartzen dituzte; hortaz, datorren irailean beste 100 sartzen badira, 270 izango dira graduko ikasleak. Jatorriari dagokionez, Euskal Herriko dezente daude,

Eraikina ere oso berezia da. 15.000 metro koadro ditu, guztiak gastronomiari zuzendutakoak, eta dagoeneko hainbat sari jaso ditu. Bertan egunero 50 pertsonarentzat menuak ematen dituen sukalde bat dago –irailetik aurrera bigarren sukalde martxan jarriko dute, plater sofistikuak eskainiko dituen—. Horrez gain, gaika banatutako hamar sukalde dituzte (haragia, arraina, okindegia, postreak...), baita dastaketa-gela, laborategiak eta hainbat ikasgela ere. Badira, halaber, erabilera anitzeko aretoa eta 200 pertsonentzat egokitutako auditoriuma. Azken horretan denetariko ekitaldiak egin izan dituzte, eta 2012an, esaterako, 100 bat ekitaldi

## ‘BISITA GAITZAZU’ LELOA DUEN EKIMENA, BCC-REN ATEAK ARE ETA GEHIAGO ZABALTZEKO



Aurten ‘Bisita gaitzazu’ leloa duen ekimena martxan jarri dute. Hala, jendeak Basque Culinary Centera deitu eta erreserba eginda, taldeen bisita gidatuak antolatzen dituzte. “Hasieratik konturatu ginen jendeak BCC ikusi eta etorri nahi zuela, eta horri erantzuna ematea erabaki genuen”, azaldu du Joxe Mari Aizegak. Basque Culinary Center proiektua azaldu, bisita gidatua egin eta pintoak egiteko tailerra antolatzen dute; ekimena euskaraz, gazteleraz zein ingelesez egiteko asmoa dute. “Hasieratik konturatu ginen jendeak BCC ikusi eta etorri nahi zuela. Guretzat hori oso garrantzitsua da, horregatik, baliabideak jarri nahi ditugu. Ez dugu nahi gizarteak gu jakintzagune elitista bat bezala ikustea, urrun sentitzen duen gunea, baizik eta hurbila eta irekia sentitzea nahi dugu”.

Ildo beretik, urtero 14 eta 18 urte bitarteko gaztetxoentzat gastronomia-udalekuak antolatzen dituzte udan zein neguan, eta ikastaroek oso harrera ona izaten dute. Aurten, gainera, Euskal Herritik kanpo ere antolatu nahi dute horrelako egonaldi bat. Eta, bestalde, hilean behin BCCKo graduiko ikasleek chef ezagun bat gonbidatu eta berarekin batera, afaria prestatzeaz gain, ekimen guztia kudeatzen dute. Afari horiek 50 pertsonarentzat izan ohi dira eta, jakina, berehala betetzen dira plaza guztiak.

### BASQUE CULINARY CENTER,

PLATAFORMA PARA PRESERVAR Y  
DESARROLLAR EL LEGADO  
CULTURAL DE LA COCINA

Basque Culinary Center es la única facultad oficial de Ciencias Gastronómicas en Europa. También es un centro de investigación y una plataforma para promocionar Euskal Herria y su cultura gastronómica. La fundación creada por diversas entidades públicas y Mondragon Unibertsitatea, así como por los siete cocineros más prestigiosos de Euskal Herria busca ser un referente a nivel internacional, además, de dar servicio a todos los entusiastas de la cocina.

La oferta formativa de BCC va a dirigida a tres grandes grupos: un grado en Gastronomía multidisciplinar de cuatro años para estudiantes universitarios; másteres, cursos y talleres dirigidos a cocineros, investigadores y profesionales de empresas de alimentación; y cursos y talleres de corta duración para aquellos que tienen la gastronomía como hobby.

Este edificio singular de 15.000 metros cuadrados acoge en su interior un restaurante –en septiembre abrirán el segundo, más sofisticado–, diez cocinas temáticas, laboratorios, aulas, una sala polivalente y un auditorio. BCC tiene sus puertas abiertas, asimismo, en enero ha puesto en marcha un programa de visitas guiadas.





## GORLIZ OSPITALEKO FISIOTERAPEUTA XABIER INTXAURBE

XABIER INTXAURBEK GORLIZ OSPITALEKO ELEKTROGUNEAN EGITEN DU LAN. BASAURIARRA DA INTXAURBE, BAINA SOPELAN BIZI DA. AURRETIK BASURTUN ETA BILBO ALDEKO OSASUN-ZENTROETAN ERE LAN EGIN IZAN DU. GORLIZKOA ERREHABILITAZIO ALORREKO OSPITALE GARRANTZITSUENA DA, ETA INTXAURBEK IZUGARRI **ESTIMATZEN** DU PAZIENTEEI AURRERA EGITEN LAGUNDU AHAL IZATEA. PAZIENTEEK ERE HALA ESKERTZEN DIOTE AHALEGINA. SESTAO FUTBOL TALDEAN JOKATU ZUEN ETA KIROLARI AMORRATUA DA.

### Ospitale honek betidanik izan du garrantzia atsedean eta zaintza berezian esparruan...

Bai, lehen umeak hartzen zituen tratamendua jasotzeko. Eta gaur egun ere errehabilitazioa da bertako alderdi garrantzitsuena: gaixo neurologikoena, baita traumatologikoena ere.

### Gorliz Ospitaleak beti izan du erreku-perazio eta errehabilitazio profila...

Bai. Kokapena oso garrantzitsua da, batez ere epe luzerako tratamendua egin behar bada. Leku lasaia da, eta itsaso ondoan egotea garrantzitsua da, bertako ura aprobetxatuta balneoterapiako tratamenduak egiten ditugulako.

### Zer ingurutako jendea hartzen duzue? Zenbat jende artatzen duzue egunero?

Bizkaia osokoa. Hau post-akutuen ospitalea da. Paziente batek **desoreka** edo krisia duenean, adibidez iktus bat

izanez gero, akutuen ospitalera eramaten dute, Basurtu edo Gurutzetara. Baina gero, orekatzen denean, hona ekartzen dute. Irizpidea patologiaren arabera da. Elektrogunetik egunero 30 bat paziente pasatzen dira. Fisioterapeutak eskuz egindako lanari uhinekin laguntzen diogu. Eta gimnasioan egunero 12-13 paziente hartzen dituzte.

### Zer profiletako pazienteak hartzen dituzue?

Batez ere nagusiak. Traumara datozenak, gehienak. Eta neurologian, gazteren bat edo beste egon daiteke -istripuren bat izan duelako, adibidez- baina gehientsuenak nagusiak dira.

### Instalazioak berritu dituzue...

Bai, orain dela urtebete. Gimnasioan leku asko irabazi dugu eta baldintzak hobekitu dira, bai pazienteentzat, bai langileentzat.

### ERREHABILITAZIOA

Xabier Intxaurre fisioterapeutak ospitaleko elektrogunean egiten du lan, baina tarteka gimnasioan aritzen da eta pazienteei balneoterapiako tratamenduak ere ematen die.

### Errehabilitaziora datorren paziente batek zer behar du: pazientzia, pertseberantzia, gogor egitea...?

Pazientearen izaeraren arabera da. Batzuek mimoa behar dute, lasaitasuna, goxotasuna; beste batzuek, berriz, inpultsoa. Pazientea leku berri batera dator, eta lasaitasuna eta konfiantza transmititu behar zaio, eroso egoteko.

### Eta fisioterapeuta on batek zer behar du?

Ezagutza tekniko oso garrantzitsua da, baina psikologikoa ere behar da: gaixoaren lekuan jartzea eta, hortik abiatuta, berarekin lan egiten hastea.

### Gorlizko Ospitalea euskalduna da?

Denetatik dago. Sopela, Plentzia eta Gorlizko pazienteak, esaterako, euskaldunak dira, eta Bizkaiko beste herri askotakoak ere bai. Nik paziente euskaldunei euskaraz egiten diet, eta euskaraz dakiten lankideei ere bai.

**Artatua:** *Atender.*

**Betidanik:** *Desde siempre.*

**Desoreka:** *Trastorno, desequilibrio*

**Sendaketa:** *Cura, tratamiento médico.*

**Estimatu:** *Apreciar.*



# “LONDRESKO DOMINA AMETS BAT BEZALAKOA IZAN DA”

ELI PINEDO

ELI PINEDO ARABARRAK ESPAINIAKO LIGAN ETA EUROPAKO KOPAN DIHARDU BERA BERA TALDEAREKIN; HORREZ GAIN, ESPAINIAKO SELEKZIOAREKIN ERE JOKATZEN DU PINEDOK. JORGE DUEÑAS HAUTATZAILEAREN AGINDUETARA BRONTZEKO DOMINAREKIN ITZULI ZIREN LONDRESKO JOKO OLINPIKOETATIK. BALENTRIA HORI KONTUAN HARTUTA SAN PRUDENTZIO JAIETAKO **PREGOILARIA** IZANGO DA PINEDO, PATRICIA ELORZA ETA MAIDER UNDA KIROLARIEKIN BATERA.

## Nola hasi zinen eskubaloian?

Amurrion bertan hasi nintzen, eskola garaian. Hainbat kirol egiten genituen, eta zortzigarren maila amaitu genuenean eskubaloia aukeratu genuen ahizpak eta biok. Infantil mailan Euskadiko selekziora joan ginen eta gero Espainiakora. Konturatu gabe profesioaletara iritsi ginen.

## Hasierako urteetan Patri ahizparekin batera ibili zinen.

Bai, polita izan da. Batera ibili ginen 23 urte izan arte; orduan, ni Valentziara joan nintzen eta Patrik Bera Beran jarraitu zuen. Orain dela bi urte berriro ere elkartu ginen Itxakon. Dagoeneko Patrik utzi du eskubaloia.

## Bera Beran hasi zinen eta handik Valentziara, Itxakora eta Danimarkara joan zinen.

Bera Beratik Valentziako Cementos La Union taldera joan nintzen eta handik Saguntora. Handik Itxakora eta, gero, Danimarkara. Eskubaloian jokatzeko oso modu ezberdinak ezagutu ditut, baita

jende eta kultura ezberdinak ere. Oso esperientzia politak bizi izan ditut, eta asko ikasi dut. Ibilbideari esker naiz gaur egun naizena.

## Kirolari moduan lesioak errespetatzea ezinbesteko izango da.

Bai, ia dena da. Nik zortea izan dut, eta ez dut lesiorik izan. Gaztetan belauneko lotailu-haustura izan nuen baina gerora ez dut arazorik izan. Oso garrantzitsua da lesioena; izan ere, hori da kirolaren alde txarra.

## Danimarkako HC Odensen ibili zinen. Nola bizi dute eskubaloia han?

Oso ezberdina da. Han emakume kirolariak askoz ere profesionalagoak dira, emakumeak eta gizonak berdinak dira. Gainera, Europako liga gogorrena da Danimarkakoa. Profesionaltasun horretan, amatasuna ere beste modu batera tratatzen dute: kirolariak, kontratua negoziatzen duenean, klubarekin hitzartzen du noiz izan nahi duen ama, eta laguntasun guztia jasotzen du. Hemen,

## ELI PINEDO

Bidebieta kiroldegi-ko kantxan. Egunero izaten dituzte entrenamenduak.

ama izanez gero ez zaituzte kontratatzen, eta errekuerazioa zure kontura izaten da. Eguneroko bizimodua ere oso ezberdina da. Herrialdea gustatu zitzaidan, eta esperientzia oso interesgarria izan zen.

“Danimarkan emakume kirolariak profesionalagoak dira, eta gizonezkoak eta emakumezkoak berdinak dira”

## 2012ko Londresko Joko Olinpikoetan izan zinen eta brontzeko domina batekin itzuli. Nola gogoratzen duzu hura?

Izugarria izan zen, amets bat bezalakoa, oraindik ez dut sinesten! Esperientzia berezia eta polita izan zen, baina baliteke berriro ere ez errepikatzea. Izan ere, hemendik hiru urtera Brasileko Joko Olinpikoak izango dira, baina 35 urterekin ez dakit nola ibiliko naizen. Ez dut uste jokatzeko jarraituko



dudanik. Ez dakit, baina zail ikusten dut.

**Arrakasta horren ondorioz, Gasteizko San Prudentzio eguneko pregoilaria izango zara Maider Unda eta Patricia Elorza kirolariek batera. Ilusioa egiten du?**

Esperientzia ezberdina izango da, eta polita. Uste dut urduri jarriko garela, izan ere gure lana ez da pregoiak ematea. Oraindik ez gara elkartu ezer idazteko... ea jarraibideren batzuk ematen dizkiguten!

**Jorge Dueñas selekzioko hautatzailearekin Mazedonian, Brasilen, Londresen... dominak lortu dituzue. Abenduan jokaturako Serbiako Europako txapelketan, ez, ordea.**

Maila altua dagoela erakusten du horrek. Zaila da hor goian mantentzea. Gainera, jokalaria oso nekatuta geunden. Iazko urtea oso gogorra izan zen, partida mordoa jokatu genituen, eta hori nabaritu egiten da. Munduko txapelketan eta Londresko Joko Olinpikoetan brontzea lortu genuen.

**Pedagogiako eta ile-apaintzailearen ikasketak dituzu.**

Bai, ez dute euren artean zerikusirik baina halakoa naiz ni! 20 urterekin ikasi nuen pedagogia, baina ez dut neure burua lan horretan ikusten. Ez dakit zertan ibiliko naizen hau dena amaitzen denean. Bokazio krisia daukat! Eskubaloiarekin lotuta jarraitzea gustatuko litzaidake, baina ez dut neure burua entrenatzaile ikusten. Eskubaloi-eskola bat muntatzea gustatuko litzaidake, hori bai.

**Eskubaloia momentu onean dago. Nabaritzen duzue?**

Orain ezagunagoa da. Londresen lortutako brontzezko dominak eta gizonezkoek irabazi duten Munduko txapelketak balio izan dute kirola ezagutzera emateko. Jendeak orain badaki nor den Julen Aginagalde, edo Eli Pinedo, nahiz eta telebistako kirol tartearen baka-rik futbola eskaini.

**Zaila da emakume kirolaria izatea?**



“Londresko dominak eta gizonezkoen Munduko Txapelketak eskubaloia ezagutzera eman dute”.

Ez, zaila ez. Zaila, ekonomikoki konpentsatua egotea da. Gainera, gaur egun badakigu zein den egoera ekonomikoa, eta horrek arazo gehiago sortzen ditu.

**Zer utzi duzu albo batera eskubaloiarengatik?**

Familia eta lagunak, batez ere kanpoan zaudenean. Besterik ez. Izan ere, nik bizitza normala daukat, denetarik egiten dut: lagunekin egoten naiz, ikasi egin dut...

**Domina:** *Medalla.*  
**Hautatzaile:** *Seleccionador.*  
**Jarraibide:** *Pauta, instrucción.*  
**Joko Olinpikoak:** *Juegos Olímpicos*  
**Lotailu-haustura:** *Rotura de ligamentos*  
**Pregoilari:** *Pregonero/la*





## EUSKARAZKO OFIMATIKAKO ERREMINTAK

## NAHI DUTEN LANGILE GUZTIEK EUSKARAZKO OFIMATIKAKO ERREMINTA OROKORRAK INSTALATU ETA ERABIL DITZAKETE



OSAKIDETZAKO EUSKARA ZERBITZUAREN EKIMENEZ, WINDOWS 7 DUTEN OSAKIDETZAKO PC GUZTIETAN EUSKARAZKO OFIMATIKA-ERREMINTAK PRESTATU DAITEZKE. ERAKUNDE ZENTRALEKO INFORMATIKA ZUZENDARIODETZAK HAINBAT PROBA EGIN DITU SISTEMA OPERATIBO BERRIAK ETA EUSKAL OSASUN ZERBITZUAREN SISTEMAK TALKA EGIN EZ DEZATEN; AZKENEAN, EMAITZA ONAK LORTU DITUZTE, ETA DAGOENEKO LANGILEENTZAT ESKURAGARRI DAGO.

Osakidetzako euskara-planaren helburuetako bat da ia langile guztiek **lanabes** duten ordenagailuetan euskaraz aritzeko aukera izatea. Horren bidean, Euskara Zerbitzuak Erakunde Zentraleko Informatika Zuzendariordetzara jo zuen. Departamentu horretatik saiatu egin ziren Osakidetzan garai hartan indarrean zegoen XP softwarearen eta bere office-ren bertsio euskaratua erabiltzen, baina konfigurazio horrek erakundearen sisteman arazoak eman zituen. Office-k ondo funtzionatzen zuen, baina sistema operatiboak ez, eta horren ondorioz lan egiteko modua asko moteldu egiten zen.

Sasoi hartan XP softwarearekin egiten zen, orain, berriz, Windows 7 prozesua burutzen ari da Osakidetzan. Sistema hori garatu da eta

oraingoa bateragarriagoa da. Informatika Zuzendariordetzak sistema operatibo horrekin probak egin ostean, Euskara Zerbitzuak erabaki du badela garaia euskarazko aukera emateko.

**OFIMATIKAKO OINARRIZKO TRESNAK**

Lehenik eta behin, argitu beharra dago sistema operatiboak dela ordenagailuak, makinak berak, funtzionatzeko behar duena eta ofimatikako tresna arruntak aipatzen direnean office-z ari garela, alegia, **mahai-gaineko** aplikazio orokorrak biltzen dituen aplikazio multzoaz; ezagunenak aipatzearen: word, excel, powerpoint eta outlook.

Dena dela, ofimatikako tresnak euskaraz erabiltzeko aukera eskaini aurretik Informatika Zuzenda-

rariordetzak aztertu egin du zein den Osakidetzako lanpostu estandarra. “Beste programa askoz gehiago daude eta badira beste asko erabiltzen dituzten langileak, baina oinarrizkoenetara jo dugu”, azaldu du Informatika Zuzendariordetzako Rosa Bastidak.

Informatikariek azaldu digutenez, Osakidetzan ez dute ezer berri sortu; egin dutena da sistema operatiboak probatu eta, bateragarriak direla ziurtatu ostean, Euskara Zerbitzuak berak eta zenbait langilek egindako eskaerari erantzuna eman. Bide batez, gainera, sistema operatiboak aldatzeaz baliatu dira konfigurazio hori guztia maketara pasa eta sistemak berak zituen gehigarriak garbitzeko. “Windows XPekin lanean sei urte pasa generamatzan eta departamentu

**ERABILTERRAZA**

Informatika eta Euskara Zerbitzuek ahalbideratu dute oinarritzko ofimatika erremintak euskaraz erabiltzea. Argazkian Osakidetzako bi langilek euskarazko aplikazioan dihardute.

edo sail desberdinetatik eskatutako aldaketa zehatzak gehituta, sistemak konfigurazio asko zituen gehituta”.

Gainera, Informatika Zuzendariordetzatik argitu dute sistema operatiboaren eta office-ren lizentzia gaztelaniaz dagoela, baina modulu horren barruan beste hainbat hizkuntzaren aukera dagoela (euskara, galiziera eta kata-

lana, tartean); eta aukera horretaz baliatzen direla.


### MAKETA INSTALATUTA

Euskara Zerbitzuak Erakunde Zentraletik Osakidetzako erakunde guztietako euskara-arduradunei bidali dizkie euskarazko ofimatika-erremintak instalatzeko argibideak. Era berean, Erakunde Zentraleko Informatika Zuzendariordetzatik

te beraien sistema operatiboaren barruan; bai, behintzat, lanpostu arrunta dutenek eta Windows 7 duten PC guztietan. Eta make-ta horretatik abiatuta, prestatzea erraza da, baina langile guztiak ez daude hori egiteko baimenduta. Dena dela, hizkuntza-aldaketa lehenengo aldiz egiteko, langileei aholkatzen zaie beraien erakunde-ko informatikariei informazioa eskatzea. Hizkuntza-aldaketa egiteko **jarraibideei** dagokienez, eman beharreko pausoak oso errazak dira.

Euskara Zerbitzuko arduradunak pozik daude lortutakoarekin, eta Osakidetzako langileei **gonbitea egiten** diete pauso hori eman eta euskarazko ofimatikako erremintak erabil ditzaten. Informatikako Zuzendariordetzako teknikari Rosa Bastidaren esanetan, “ez dauka zailtasunik, erraza da. Gainera, ni euskara ikasten nabil eta gehiago ikasteko oso aproposa da”. Euskara Zerbitzutik, berriaz, uste dute euskararen normalizazioaren bidean administrazioa **eredugarria** izan behar dela eta bertako langileek ere ahalegin txiki hori egin beharko luketela.

Euskal hiztun batzuen artean uste zabaldua da informatikako esparrua gaztelaniaz jorratzekoa dela, baina euskarazko software orokorrak euskaraz ere izateak lagun lezake muga hori gainditzen eta euskara teknologia alorrera oztoporik gabe hedatzen. Izan ere, erreminta berriak instalatu eta denbora gutxira zalantza txikiak ager litezke, baina gerora ohitu eta berdin-berdin lan egiten da euskarazko softwareekin. Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako Administrazio Publikoetan ere software orokorren euskarazko bertsioen erabilera **sustatu** da, eta etorkizunean ere ildo beretik jarraitzeko konpromisoa egongo da.



erakunde guztietako informatikariei eman dizkiete horri buruzko argibideak. Hortaz, euskarazko erremintak erabili nahi dituen edozein langilek bere erakunde-ko euskara-arduradun edo informatikariarengana jo ahal izango du laguntza eske, nahiz eta langileak berak aukera duen hizkuntza-aldaketa egiteko.

### EMAN BEHARREKO PAUSOAK

Dagoeneko Osakidetzako ia langile guztiek hizkuntza-aukera hori jasotzen duen maketa jarrita dauka-

### LEGEZKO OHARTARAZPENA

Eskuliburu honetatik hartutako pantaila eta produktuak Microsoft Corporation eta beste fabrikatzaile batzuek erregistratutako markei dagokie.

**Eredugarri:** *Ejemplar, modélico.*  
**Gonbitea egin:** *Invitar.*  
**Jarraibide:** *Instrucciones, pautas.*  
**Lanabes:** *Herramienta.*  
**Mahai-gain:** *Escritorio*  
**Sustatu:** *Impulsar.*



# MEDIKUAK ETA GERTAERAK

**EUSKAL MEDIKUNTZAREN AURRERAPAUISOAK IZEN ETA ABIZENEN PERTSONEI ZOR DIZKIEGU. HORRA HOR, ABANDOKO AREILTZA DOKTOREA, TRAUMATOLOGO ETA MEDIKU TREBEA IZATEAZ GAIN, BASURTUKO OSPITALEA EUROPAKOEN MAILARA JARRI ZUENA. JOSE BEGIRISTAIN DONOSTIARRA GIPUZKOAKO MEDIKUNTZA ETA KIRURGIA AKADEMIAKO PRESIDENTEA IZAN ZEN. BARNE MEDIKUNTZA ESPEZIALISTA GISA ARITU ZEN HIL ZEN ARTE ETA DONOSTIAKO AZKEN MEDIKU 'OROKORRA' IZAN ZEN. MEDIKUNTZARAKO ETA BESTEEI LAGUNTZEKO BIZI IZAN ZEN.**



**JUAN GONDRA REZOLA**  
Euskal Herriko Medikuntzaren historiaren gaineko aditua. Bilboko Udaleko Osasun Sailean, Basurto Ospitalean eta Medikuntza Fakultatean jardun zuen, besteak beste.



## AREILTZA DOKTOREA

Enrique de Areilza y Arregi Abandoko San Frantzisko kalean jaio zen 1860. urtean; garai horretan Abando **elizatea** apartekoa zen, beraz, ez zen Bilboko, Abandokoa baizik. Aita albaitari eta aitona **ferratzaile** zeuzkan. Bizkaiko Institutuan (bigarren mailakoak) eta Valladolideko Medikuntza Fakultatean (lizentziatura) bete zituen ikasketak. Harrezkero, mediku izendatu bezain laster Parisera joan zen hango ospitaleetan bere trebakuntza eta prestakuntza hobetzeko eta, handik gutxira, Doktoretza Madrilgo Unibertsitatean lortu zuen.

Gero jaioterrira itzuli zen inoiz ere alde ez egiteko, kanpoan lan egiteko eskaintza erakargarri asko jaso bazuen ere. Medikuntza arloan hainbat lan bete zituen: hasiera batean, Trianoko Meatzarien Ospitalean; gero, Bilboko

lehenengo klinika pribatuan; eta, azkenik, Basurto Ospitalean. Bere ospea alde guztietara hedatu zen, traumatologo eta mediku trebea izateagatik; baina bilbotarren bihotzeraino heldu zen Basurto zuzendaritzan egin zuen lanari esker. Izan ere, 1918tik 1926ra bitartean Areiltzak Basurto goitik behera aldatu zuen, Europa mailako ospitalea lortu arte. Ez daukagu lekurik bere ekintza guztiak zerrendatu ahal izateko, horietako batzuk bakarrik aipatuko ditugu: laborategiak eta espezialitateak sortzea (lehen ez zegoen espezialitaterik, Pedriatria eta Oftamologia izan ezik), kirurgia eta anestesia eguneratzea, barnetegiaren eta uda-ikastaroaren bidez irakaskuntza antolatzeta... Erizaintza ere aldatu nahi izan zuen, baina heriotza helduko zitzaion hori lortu baino lehen, 1926. urtean,

---

**1918tik 1926ra bitartean Areiltzak Basurto goitik behera aldatu zuen, Europa mailako ospitalea lortu arte.**

hain zuzen ere.

Bizkaiko Erakunde mediko guztietako kidea, Bilbo'ko Sendalarintz Jakindiako eta Bizkaiko Sendagileen Elkarteko presidentea; beti prest osasunaren aldeko jarduerak bermatzeko (Gorlizko Ume Ospitalea sortzeko gogotsu jokatu zuen); medikuntzatik landa ere bizitza sozial aberatsa izan zuen... Ez dakigu nondik ateratzen zuen astia, baina hainbeste eginkizun izatea **miresgarria** dirudi.





## JOSE BEGIRISTAIN GORRITI

“Don Jose”

Argazkia:  
Auñamendi Eusko  
Entziklopedia.  
Bernardo Es-  
tornés Lasa  
Fondoa.

1951. urtean, Donostiako Udalak hiriko urrezko medaila eman zion Jose Begiristain Gorriti doktoreari. Aurreko urtean omenaldi batzuk ere jasota zituen osagileak Medikuntzaren “urrezko ezteiak” betetzearren, hau da, berrogeita hamar urtez mediku lan egiteagatik. Urte bat geroago hilko zen enbolia baktea jota.

Begiristain 1879. urtean Donostian jaio zen, baina bere sustraiak Gipuzkoan barrenetik sakabanatuta zeuzkan: Aginagan, Zumaian eta Ataunen, hain zuzen ere. Bigarren mailako ikasketak Donostiako Marianistetan egin zituen. Medikuntzari dagokionez, Valladolideko Fakultatean ikasi zuen eta, gero, Parisera eta Berlinera joan zen bere ezaguera hobetzeko asmotan.

Donostiara itzuli ondoren, San Antonio Abad Ospitalean hasi zen lanean; bertan, 1906. urtean, zaintzako mediku izendatu zuten, eta handik gutxira gelaburua izatea lortuko zuen. Eta Barne Medikuntzako burua denbora luze (hil arte kasik) eman zuen. Bestetik, Don Josek kontsultan X izpiak erabili zituen lehen mediku gipuzkoarra izan zen. Oso ospe handia lortu zuen, Donostian, Gipuzkoa osoan eta Madrilen. Horiek horrela, leku guztietatik heltzen zitzaizkion gaixoak kontsultara.

Nahiz eta Barne Medikuntzako espezialista izan, medikuntzako beste arlo batzuetan ere jardun zuen, azaleko gaixotasunen alorrean, batik bat. Gaur egun hori ez da arrunta izaten,

baina XIX. eta XX. mendeen arteko epealdian ohikoa izaten zen. Neurri batean Donostiako azken mediku “orokorra” izan zen.

### Don Josek kontsultan X izpiak erabili zituen lehen mediku gipuzkoarra izan zen. Oso ospe handia lortu zuen, Donostian, Gipuzkoa osoan eta Madrilen.

Gipuzkoako Medikuntza eta Kirurgia Akademiako presidentea izan zen; baina gure Don Josek ez zuen bizitza soziala aberatsik; beste mediku donostiar baten esanetan (Ignacio Badiola): “gizarte-onuratik edo onespenerik guztiz kanpo bizimodua egiten duen gizona da”, baina nahiz gaixoeekin nahiz medikuekin gizon ona eta gozoa izaten zen; Badiolak berak idatzi zuenez, “bere adeitasuna eta **ontasuna** apartekoak izan ziren”.

**Albaitari:** Veterinario.  
**Elizate:** Anteiglesia.  
**Ferratzaile:** Herrador.  
**Miresgarrri:** Milagroso.  
**Ontasun:** Bondad.



Iturria: Urkia Etxabe, José M (2002). Barriola Íntimo. Donostia, RSBAP, 717



Iturria: Urkia Etxabe, José M (2002). Barriola Íntimo. Donostia, RSBAP, 714



Iturria: Urkia Etxabe, José M (2002). Barriola Íntimo. Donostia, RSBAP, 727

Erreferentziak:  
Gastaminza: "Formación y labor científica del Dr. Beguiristain", Sesión necrológica en memoria del Dr. D. J. Beguiristain, San Sebastián, 1953.  
Urkia Etxabe, José (2002). Barriola Íntimo. Donostia, RSBAP, Solorzano, M (2013). El Hospital Civil de San Antonio Abad. Donostia, Osakidetza.

GALDAKAO-USANSOLO

# ELEKTROMEDIKUNTZAKO LANGILEEN ELKARTASUNA HERRIALDE TXIROEKIN



GALDAKAO-USANSOLO OSPITALEAN EUSKALMAN ENPRESAKO HIRU LANGILEK ASPALDITIK DIHARDUTE LANEAN EBAKUNTZA-GELETARAKO MAKINAK KONPONTZEN ETA HORREN MANTENUA EGITEN. BERAIEI OHIKO LANEZ GAIN, TARTEKA OSPITALEAN EDO ESKUALDEKO OSASUN-ZENTROETAN **ZAHARKITUAK** GELDITU DIREN MAKINAK KONPONDU ETA BESTE HERRIALDE TXIROAGOETARA BIDALTZEN DITUZTE.

Euskalman enpresa Grupo Empresarial Electromedico taldearen barruan dago, eta talde horrek Munduko Teknikariak GKE sortu zuen 2010ean. Era berean, talde horrek harreman handia dauka Mugarik gabeko Medikua eta Mugarik gabeko Erizainak GKEekin ere. Hala, herrialde txiroagoetara elkartasuneko hainbat proiektu bideratzen dituzte.

Dena dela, Galdakao-Usansolo Ospitalean lan egiten duten Mikel Gotzon Bijjeska, Carlos Cortazar eta Ander Illarremendi elektronika-teknikariak osatutako taldeak urte asko daramatza beraien lanaren bitartez premia dutenei laguntzen. Izan ere, Cortazar Cuzcon (Peru) izana da askotan eta horrek ikuspegia ireki diola dio: “Hango errealitatea ikusteak kontzienteago egiten zaitu munduan dauden

egoerekiko, eta guk soberan daukagun gauza gutxirekin beste herrialde batzuetan asko lagundu dezakegula erakusten digu”. Cortazar harago doa eta adibide esanguratsu bat aipatu du: “Gaur egun ospitaleetako profesionalek ez dute nahi sei kanal baino gutxiago duen elektrokardiografik, eta berez kanal bakarrek ere ederto funtzionatzen dute. Teknologia oso azkar doa, baina atzean gelditzen denak ere balio handia izan dezake”.

Lantalde horren eguneroko zeregina Galdakao-Usansolo Ospitalean eta horren sarearen barruan dauden osasun-zentroetan (Galdakao, Basauri, Gernika, Durango eta Laudio) matxuratutako makinak (elektrokardiografoak, X izpienak...) konpondu eta orokorrean pazienteekin lotutako aparatu guztien

mantenua egitea da. Lan handia izaten dute makina horiek guztiak konpontzen eta, gainera, kasu gehienetan lana presazkoa izan ohi da, erreminta horietako asko ebakuntza-geletan erabiltzekoak izaten direlako.

## ZAHARKITUTAKOAK EGOKITU

Zenbait kasutan, baina, ez dituzte makinak konpontzen, Osakidetzak berriagoak erosi eta horiek dituzten ezagarriei dagokienez zaharkituak gelditu direla erabaki eta **alboratu** egiten dituelako; edo erremintaren matxura handiegia dela ondorioztatzen delako. Hala ere, “guk bajan emandako makinak, itxuraz ondo badaude eta konpontzeko aukera dagoela ikusten badugu, gordetzen ahalegintzen gara”, diote. Dena dela, argitu nahi dute alboratutako makinak, behin baino gehiagotan, apurtuta baino gehiago erabilera desgokiaren ondorioz kaltetuta egoten direla berez.

## LANTALDEA

Ezkerretik eskumara Mitxel Gotzon Bijjeska, Carlos Cortazar eta Ander Illarremendi. Euskalman enpresako langileak dira eta Galdakao Usansolo Ospitalean dute tailerra. Ebakuntza-geletarako makinaren mantenua eta konponketa egiten dute.

“Guk bajan emandako makinak, itxuraz ondo badaude eta konpontzeko aukera dagoela ikusten badugu, gordetzen ahalegintzen gara”.

Hortaz, erreminta horietako batzuk alboratu eta gorde egiten dira. Batzuetan Euskalmaneko langileek gordetzen dituzte eta beste batzuetan ospitaleko zelari edo erizainburuek. Eta, eskaerarik badago, konpontzeari edo berritzeari ekin eta premia duen herrialdera bidaltzen dituzte. Kasu gehienetan eskaera hori Munduko Teknikariak GKEtik heltzen da, baina berau sortu aurretik ere konpondu eta bidali izan dituzte makinak.

Esaterako, orain dela sei bat urte Errusiara tentsiometro eta bestelako aparailuz betetako autobus bat bidali zuten eta hainbat mediku ere hara joan ziren laguntzera. “Aparatu batzuek urte dezente zuten, baina, ondo berraztertu

ostean, horietako asko baliagarriak zirela egiaztatu eta bidali egin genituen”.

Cuzcon ere, Carlos Cortazarren ekimenaren bitartez, tailer bat eraiki eta martxan jarri zuten, hango artisau batzuek bizimodua atera ahal izateko. Kasu horretan, gainera, Euskalmaneko langileez gain, Galdakao-Usansolo Ospitaleko pertsona asko egon zen inplikaturata.

#### GKE-EN ESKAEREN ARABERA

Bestalde, 2010ean Munduko Teknikariak GKE hau sortu zenetik elkartasuneko lan horiek bestelako prozedura izaten dute, hau da: GKEtik deitu edo idatzi egiten diete beste herrialde batera bidaltzeko makina konkritu bat eskatuz. Euskalmanekoez beraien biltegia **arakatzeaz** gain, zelari eta ebakuntza-geletako arduradunei galdeetzen diete ea ezaugarri zehatz horiek dituen eta erabiltzen ez den aparailurik ba ote dagoen; eta halakorik badago, lehenbailehen konpontzeari ekiten diote. “Eskaeraren arabera egiten dugu lana”, azaldu du Mikel Gotzon Bijeskak; izan ere, “luzaroan inork ez badu eskatzen, makina asko bota egiten dira pena handiz, biltegietan leku asko hartzen dutelako”.

Hala, gerta daiteke makina bat konponduta edo eraberrituta egotea eta nora bidali ez izatea; edo kontra-koa, gobernuz kanpoko erakundeen bitartez material zehatzen baten eskaera jaso, baina bertan halakorik aurkitu ez eta ezin erantzun izana. Adibidez, orain dela hilabete batzuk txertoak eta **laginak** prestatzeko laborategiko **irabiagailuak** lortzeko eskaera jaso zuten, baina azkenean Galdakao-Usansolon ez zuten halakorik aurkitu.

Bizkaiko ospitale honetatik egindako materialen azken bidalketa, berriz, Hondurasera egin zuten, Munduko Medikuek gobernuz kanpoko erakundearen bitartez. Handik esterilizatutako materialaren eskaera egin zuten. Gainera, kasu hartan, Grupo Empresarial Electromedico desfibriladore erdi-automatiko berri bat erosi eta hura ere bidali zuten.

Euskalman enpresaren eta Grupo Empresarial Electromedico taldearen Munduko Teknikariak gobernuz kanpoko erakundeak azken urteotan Mauritania lan handia egin izan du, nahiz eta gaur egun, herrialde horretan dauden arazo larrien eta segurtasun ezaren ondorioz, zonaldez aldatzeko asmotan



dagoen. Carlos Cortazarrek positibo ikusten du zonalde konkritu batean laguntzea: “Egia da herrialde txiro asko daudela eta guztiei laguntzea ezin hobe litzatekeela, baina, hori ezinezkoa denez, hobe da zonalde konkritu batean arreta jarri eta hango beharrak ondo aztertuta asetzen saiatzea”.

**GKE hau 2010ean sortu zen Afrikako herrialdeen garapenean eragiteko, eta bere jomuga asistentzia sanitarioa bermatzea da.**

#### MUNDUKO TEKNIKARIAK

GKE hau 2010ean sortu zen Afrikako herrialdeen garapenean eragiteko, eta bere jomuga asistentzia sanitarioa bermatzea da. Horretarako, hainbat proiektu zuzentzen ditu eta Munduko Medikuek eta Munduko Erizainak fundazioekin ere elkarlanean aritzen da.

Orain arte zuzendutako proiektu garrantzitsuenak Mauritania gauzatu dira: Nuakchoteko haur eta gaztetxoan Centre Sante L'Espoir Ospitalera eki-

#### ELKARTASUNA

Ospitaleko langileek, Técnicos Sin Fronteras-en bitartez zein beste GKE batzuekin elkarlanean Mauritania, Perú, Honduras, Errusia eta beste herrialde batzuei laguntza eman diete.

pamendu medikoz hornitutako ambulanzia bidali zuten. Tiguenteko Centre Sante-rako beste ambulanzia bat lortu zuten, haurren **heriotza-tasa** gutxitu eta zirkulazio-istripuetan asistentzia azkarra bermatzeko. Horrez gain, Boghe eskualdeko alkateak Munduko Teknikariak elkartera jo zuten ambulanzia bat eskatzeko. Horren bitartez lortu dute eskualde horretako gaixo larriak ospitale prestatuagoak dauden zonaldeetara eramatea.

Eta esparruz aldatuta, Munduko Teknikariak erakundeak elkarlaneko hitzarmena sinatuta dauka Nuakchoteko Ospitale Nazionalarekin. Horren bitartez, Mauritaniako ospitale hartako langileei ekipoak mantentzen laguntzen diete.

**Arakatu:** Registrar, explorar, rastrear.

**Alboratu:** Apartar, arrinconar.

**Irabiagailu:** Agitador, batidor.

**Lagin:** Muestra.

**Zaharkitu:** Obsoleto.

**Heriotza-tasa:** Mortalidad.



# LEINTZ BAILARAKO LEHEN MAILAKO ARRETA UNITATEA



ARETXABALETA, ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA HERRIEI ESKAINTZEN DIE ZERBITZUA LEINTZ BAILARAKO LEHEN MAILAKO ARRETA UNITATEAK. GUZTIRA, 10.400 BIZTANLEEI BIDERATZEN DIE ZERBITZUA UNITATEAK ETA, LEHEN MAILAKO ASISTENTZIA SANITARIOA ESKAINTZEAZ GAIN, PEDIATRIAKO ETA GINEKOLOGIAKO ESPEZIALITATEAK ERE BADITU.

Bi osasun-zentro eta unitate periferiko bat hartzen ditu bere gain Leintz bailarako Lehen mailako arreta unitateak. Aretxabaletan eta Eskoriatzan daude bi osasun-zentroak eta Leintz Gatzagan unitate periferikoa, non astean birritan eskaintzen duten zerbitzua. Clemente Domingo Malvadi Lehen mailako arreta unitateko buruak bere Aretxabaletako bulegoan hartu gaitu, eskaintzen duten zerbitzuaren gaineko azalpenak eskaintzeko gogoz.

Aretxabaletatik koordinatzen da unitatea; izan ere, Aretxabaleta da hiru herrietatik handiena. Sorrean, hiru udalek parte hartu zuten unitatea martxan jartzen, “profesionalak batu nahi izan genituen, zerbitzu hobea eskaintzeko, guardiak eta txandak elkarrekin koordinatzeko”. Urteek aurrera egin ahal, ordea, gauzak aldatu egin dira. Aldaketa nagusienak ordutegiari dagozkionak izan dira. Hasierako urteetan, unitatea astelehenetik larunbatera irekitzen zen, goizean 8:00etatik 13:30era eta arratsaldeetan 15:00etatik 18:30era. “Gaur egun, Aretxabaletako osasun-zen-

troa goizeko zortzietatik gaueko zortzietara irekita dago, eta Eskoriatzan goizeko zortzietatik arratsaldeko hiruretara”. Leintz Gatzagan, berriz, astean birritan pare bat orduko eskaintza egiten dute.

## 24 LAGUNEKO TALDEA

Guztira 24 lagunek egiten dute lan unitatean, horietatik 19 profesional sanitario eta beste 5 **administrazio-laguntzaile**. Profesional sanitarioen artean medikuak, pediatrak, emaginak eta erizainak daude. “Ahalik eta bitarteko egokienak eskaintzen saiatzen gara, bai pertsonal arloan, bai azpiegitura kontuetan”, esan digu Clementek. Eskoriatzako egoitza orain 5 urte **zaharberritu** zuten, eta gaur egun gune dotorea da, modernoa, eta herriaren erdi-erdian dago.

Aretxabaletakoan, berriz, azken urteotan espazioaren aldetik arazo larriak izan dituzte, batez ere goizean. Arratsaldeetan eskaintza ez da hain masiboa eta, hortaz, zerbitzu hobea eskaintzeko aukera dago. “Behar-beharrezkoa da Aretxabaletako gunea handitzea, eta,aldi berean, emaginaren eta ginekolo-

goaren bulegoa osasun-zentro barrura ekarri beharko genuke. Izan ere, gaur egun ez da modurik onena zerbitzua eskaintzeko. Bertan ez dago komunik, eta hona etorri behar izaten dute”, kexu da unitateko burua.

Era berean, Aretxabaletako herriari emaginak eskaintzen dion zerbitzua Udalak utzitako zenbait aretotan eman izan dute azken urteotan. “Orain arte kirol-etxean eskaini izan dugu, eta aurrerantzean beste gune batean eskainiko da, Ilargi plazan Zainduz gimnasioak duen egoitzan”.

## ETORKIZUNEN ERROKAK

“Ezer baino lehen, aipatuko nuke guztiontzat erronkarik nagusiena dela krisiari aurre egitea eta gainditzea. Hori esanda, uste dut gure unitaterako badirela beste zenbait erronka nagusi. Aretxabaletako osasun-zentroaren instalazioak hobetu behar ditugu eta zerbitzu guztiak egoitza bakarrean **bateratu**”. Pertsonen arloan dauden gorabeherak argitzea ere beste erronka bat izango da, Clementeren esanetan, “langileak gustura egoten badira, zerbitzu hobea eskaintzen dute, eta horri garrantzia eman beharko genioke”.

## UDALAREKIN ELKARRIZKETAK ABIAN

Aretxabaletako osasun-zentrorako tokirik **aproposena** zein izango zen galdetuta, unitateko buruak argi dauka: “Gaur egun hutsik dagoen Errekabarreneko **hirugarren adinekoen egoitza** da lekurik **aproposena**”. Hain justu ere, ari dira Aretxabaletako Udalarekin elkarrizketetan, baina ez dirudi epe laburrean ezer argituko denik. “Gai hori ez da argituko datozen bi, hiru edo lau urteetan”, dio Clementek.

### Administrazio-laguntzaile:

*Auxiliar administrativo.*

**Aproposa:** *Adecuado, idóneo.*

**Bateratu:** *Jutar, unificar.*

**Hirugarren adinekoen egoitza:**

*Residencia de la tercera edad.*

**Zaharberritu:** *Reformar.*

# AIARAKO KOADRILA, LEINUEN HISTORIAREN ETA NATURAREN TOPALEKU



AIARAKO KOADRILA ARABAKO IPAR-MENDEBALDEAN KOKATZEN DA, BIZKAIKO ETA BURGOS LURALDEETAKO MUGAN. 328,12 KILOMETRO KOADROKO AZALERA ETA 34.100 BIZTANLE INGURU DITU, ETA ZATIRIK HANDIENA IBAIZABAL IBAIAREN GOIALDEAN KOKATZEN DA. BOST UDALERRITAN BILDUTAKO 33 KONTZEJUK OSATZEN DUTE ESKUALDEA: AMURRIO, AIARA, ARTZINIEGA, LAUDIO ETA OKONDO.

Iraganean Aiarako eskualdea, administratiboki, Bizkaitik eta Arabatik bereizitako ingurunea zen. Gaztelako Koroaren beste probintzia bat bailitzan jokatzeko zen, 1842an Arabako lurraldean erabat txertaturik geratu zen arte. Egungo Aiarako Koadrila 1990eko apirilaren 3an eratu zen formalki.

## NATURA GUNEA ETA TXAKOLINAREN IBILBIDEA

Aiarako Koadrila ezezaguna da eta altxor ugari ditu erakusteko. Ibaizabalen iturburutik oso gertu, natura gune ikaragarriak ditu, eta historiari zizelkatutako galtzadak eta kaleak daude bertan, antzinako **dorretxe**, jauregi eta **jauretxe** dotoreen zaintzapean. Diziplina askotako museoak ditu eta, gainera, Txakolinaren Ibilbidea ere osatu dute, eskualdean IX. mendetik modu estentsiboan ekoitzi baita txakolina. Mahasti ederrak zein upeltegiak bisitatu daitezke, eta inguruetakoa jatetxe ugarietan mahaiaren bueltan gozatu.

## KEXAAK MOMENTU NAZIONAL IZENDAPENA

Ondare historiko eta artistikoari **erreparratzen** badiogu oso deigarria da, bes-

teak beste, Artziniegako alde zaharra, bere baitan 47 armari batzen dituen, Erdi Aroko **hiribilduan** ezarritako leinu nobleenak. Ikusgarria da, halaber, Kexaak gordetzen duen monumentu multzoa, 1984an Euskal Herriko Momentu Nazional izendatu zutena. Arte sakroko museoak bere baitan hartzen dituen Aiaratarren **jauregi-gotorlekua**, San Juan Bataiatzailearen eliza, Moja Domingotarraren komentu ohia eta Adatsaren Ama Birjinaren Dorre-kapera dira multzoko elementu nabarmenenak. Azken horrek, dorre-kaperak, erretaula eta frontal gotikoak ditu, eta jatorrizkoak Chicago Art Institutean daude.

Eraikin historiko gehiago daude, lurraldeak iraganean izan duen garrantzia irudikatuz. Hala, eskualde osoan 50 dorretxe baino gehiago dira, eta horietatik gehienak Aiarako udalerrian. Ezagunenak, Negortako dorrea Zuhatzan, Murgako dorrea izen bereko herrian eta Artziniegako Molinillo de Velasco dorretxea dira. Are gehiago, eskualdean jauretxe garrantzitsuak daude: Audioko Anuntzibai jauregia, zubia eta burdinola eta Okondoko Zurikaldai baseliza-jauregia dira ezagunenak, beste askoren artean.

## Testamenturako foru berezia

Aiarako Foruari buruz idatziz jasotako lehen aipua 1373koa da, baina atzeragotik dator, mendeetan lurraldea Aiaratarren leinuaren domeinua izan zelako. Foru honek oraindik ere Aiarako biztanleei testamentua egiterakoan askatasun handiagoa ematen die; eta herri hauetan du indarra: Amurrio, Aiara, Okondo eta Artziniegako lau herrixkatan, baina ez Artziniegako herrian. Foruaren jatorria nekazal ustiapenaren, baserriaren, irauaraztean datza. Bizkaiko kasuan, ondasunak familiatik kanpo gelditzea ekiditen zen; eta Aiaran, berriz, bermatu egiten zen testamentugileak ustiapena kudeatzeko gaitasun handiena duen pertsonari ondareak uztea. Hala, oinarrian foruak, gainontzeko legediak ez bezala, baimena ematen die **oinordekoak** testamentutik kanpo uzteko senitarteko ez den baten mesedetarako.

[www.aiaraldea.org](http://www.aiaraldea.org)



**Dorretxe:** *Casa torre.*

**Erreparatu:** *Observar, fijarse.*

**Jauregi-gotorleku:** *Palacio fortaleza.*

**Jauretxe:** *Casona.*

**Hiribildu:** *Villa.*

**Oinordeko:** *Herederu.*





Zer moduz?

Euskaraz  
bai sano!



**Ikur hau ikusten  
duzunean egizu  
euskaraz sano!**



Osakidetza



euskaraz  
bai sano!



## Harpidetu zaitez! aldizkaria etxean jaso nahi?

Idatzi: [osatuberri@osakidetza.net](mailto:osatuberri@osakidetza.net)



## Irakurlearen txokoa:

Aldizkarien azken zenbakian argitara emandako gai baten gainean galderarik, iritzirik edo ekarpenik baduzu; [osatuberri@osakidetza.net](mailto:osatuberri@osakidetza.net) helbidera bidaltzea daukazu. Izan ere, irakurleen arteko informazioa trukatzeko eta argitaratzeko atala sortu nahi dugu.

**Anima zaitez!**

**Ongi  
etorri**  
Osatuberri  
mundura

[osatuberri@osakidetza.net](mailto:osatuberri@osakidetza.net)



945 006 314

